

ttipi ttapa

2003ko maiatzaren 22a • XXIII. urtea



**Bidelagun elkartea
Malerrekara irekiz**

04

Duela lau urte sortu zen Baztanen Bidelagun taldea. Orain Malerrekara adinekoak eta etorkinak laguntzeko boluntarioak lortzeko kanpaina egiten ari da.



**Haur bertsolariak
lehiatzen Elizondon**

08

Nafarroako XVII. Bertsopaper lehiaketako sariak banatu ondoren, maiatzaren 24an bapateko lehiaketa egingen da Elizondon, bi kategoriatan banatuta.

03 Iruritan egindako marmelada bereziak



ZURE BOTOAK...

geroa balio du



Zure familia, lana, urrutira iritsi, gehiago egin... Zure ideiak, proiektu berriak, hazi, aurreratu...

Honek guztiak ahalegina merezi du, erabakia hartu eta pausoa eman.



2003 MAIATZAREN 25EAN

BOTOA EMAN

Hezkuntza eta osasuna, ekonomia eta ingurumena, etxebizitza, gizarte ongizatea... zure etorkizunean garrantzi handia duten galak dira, eta zure botoaren bitartez hauen inguruan erabakitzen duzu hautestontzietan.

Maiatzaren 25ean nahi duzun nafar gizartea hautatuko duzu hurrengo lau urteetarako, nahi duzuna balio duen gerorako, alegia.

ZURE ETORKIZUNAK BALIO DUELAKO



HAUSTEKUNDEAK
NAFARROAKO PARLAMENTUA
2003

DATUAK...

• **Etixerako eta lagunendako beti egin du marmelada Mari Jose Brust iruritarrak. Lanbidetzat duela zortzi urte hartu zuen eta duela lau urte hasi zen lan honetan burubelarri, autonomo gisara.**

• **Marmelada mota berezi aunitz egiten ditu: Fruta gorrien marmelada, melokotoiarena, marrubia mentarekin, albarikokea laranja likorearekin, udarea giltxaurra eta ronarekin, pikua eta melokotoia nahasiak, klaudia arana, gerezia... Gusto berrietarako erreztasuna du.**



Mari Jose BRUST *Iruritako marmelada-egilea*

ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

«Marmelada saltzea zaila da, hemen presaka eta gaizki gosaltzen dugu»

Joseba OLAGARAI

Zaila al da marmeladaren merkata inguru honetan?

Ba, ez da batere errexa. Jendeak goizean gaizki gosaltzen du, kafesne bat eta hori lasterka. Berandu oheratzen gara eta azken momentuan jeikitzen gara, lasterka. Europan aisa hobekiago gosaltzen da, gosari azkarra egiten dute: zumoa, tostadak mermeladarekin... Bariedade handia izaten da. Hau bera Frantzia, Ingalaterra edo Alemanian egiten banu, aunitz gehiago salduko nuke. Osasunarendako hobe da ongi gosaltzea, baina ohiturak horrelakoak dira.

Hortaz, non saltzen duzu marmelada?

Nafarroan gehiena. Gereziarena ongi saltzen da bentetan, Dantxarinean, Ibardinen... frantziar turistek aunitz erosten dute. Ardi gasna gerezi marmeladarekin jateko ohitura handia dute. Gipuzkoan orain hasi naiz pixko bat. Ferietan ere izaten naiz, ahal dudanean. Astea Sainduan Alikanten izan nintzen, Jadeako bortz eguneko feria batean. Madrilan ere izan naiz, ekainean Segoviara gan behar

«Mentazko txiklea ahoan nuela marrubia jan nuen eta hara! zein gusto goxoa! Frexkura ematen zidan eta mermelada sortu nuen»

dut, urrian Alakanteko Deniara ganen naiz... Esperientzia polita izaten da, denbora libre eta lana nahasten dut, turismoa ere pittet egiten dut, bakarrik gaten naiz eta nere airera ibiltzen naiz, gustora. Hori bai, ordu-tegi gogorra izaten da: goizeko 10etan hasi eta arratsean ez duzu ordurik.

Hemen inguruan ezagutzen duzu gisa honetara marmelada egiten aritzen den bertze norbait?

Ultzaman badira bi emakume marmeladak egiten dituztenak, baina bertze modu batera lantzen dute. Asoinarekin egiten dute, kalimotxo marmelada... nahiko bereziak dira. Niri ere gauza arraroak eskatzen dizkirate, piper marmelada adibidez, baina frutarekin aritzea nahiago dut.

Zenbait marmelada enkarguz ere egiten dituzu, ez da?

Nire etiketa Irular da, baina Iruñeko

artisau kate batentzat ere egiten dut. Hasieran nahiago nuen nere etiketarekin segitzea, baina azken finean saltzeko bertze modu bat da. Lehenbizian dena onartzen da eta orai aski kontent nago beraiekin.

Egiten dituzun marmelada mota guziak zure burutazioak dira?

Bai, hori bai. Probak eta probak egin ez... etxean arras mutur-finak gara, azukrea maite dugu, lau katu bezalakoak gara. Gustoen arteko oreka bilatzea da, niri hori gustatzen zait eta ez zait batere gostatzen gauza berriak asmatzea, berez ateratzen dira. Marrubia mentarekin nola ateratu nuen jakin dezazun, nik marrubia izugarri maite dut. Behin banuen ahoan mentazko txiklea eta marrubia jan nuen eta, hara! zein gusto goxoa! Frexkura ematen zidan eta hori horrela ateratu zen. Rona aunitz erabiltzen dut, erreposterian maite dut. Marmeladarekin probatu nuen eta ongi ateratzen da. Joan den neguan Eguberrietako konpotaren oinarriarekin (anixagarra, pikua, aran idorra, orejoiak, jerez ardoa, datila, giltxaurra, kanela...) marmelada egin nuen.



ARTXIBOKOAK

Xaharrak zaintzea izanen da Malerreko boluntarioen zereginetako bat.

DONEZTEBEN BULEGOA IREKI DU BIDELAGUN ELKARTEAK

Adinekoak eta etorkinak babesteko boluntarioak behar dira Malerrekan

Duela lau urte, 1999an sortu zen Bidelagun Elkartea Baztanen. Hasieran bi erizain, bi apez eta jubilatutako baten ekimena izan zena 60 boluntario bildu ditu gaurdaino, Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdi lan egiteko. Bidelagun elkartea anitza da, akonfesionala, irabazi asmorik gabekoa eta bertakoa. Xahar, ezindu, etorkin eta edozein talde bazterturi borondatezko laguntza eskaintzea da elkartearen xedea. Beraiek dioten bezala, «hartzaila izateko, lehenik eman egin behar da». Orain, Baztan aldeko esperientziak baliatu nahi dute, Malerreka, Sunbilla eta Bertizarana inguruan ere gisako proiektua abiarazteko.

Joseba OLAGARAI

Bidelagun elkarteak Malerreka (Doneztebe, Donamaria, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Oitz, Urrotz), Sunbilla, Bertizarana (Oieregi, Narbarte, Legasa) eta Basaburuara (Beintza-Labaien, Saldias, Eratsun, Ezkurra) zabaldu nahi du bere proiektu guztia, bertan finkatu eta bertakoekin landu, ahalik eta modu egokienean zonal-

deko gizarteak dituen arazoei aurre egiteko. Isidro Herguedas, Bidelagun elkarteko kideak jakinarazi digunez, «Baztanen egindako proiektua ekarri nahi dugu, baina pertsona ezberdinekin eta egoera ere ezberdina da. Boluntario talde bat sortu nahi dugu, eta hauekin junta bat osatu, erabaki independenteak hartu, hemengo errealitatea ongi ezagutzeko eta ongi fin-

katzeko. Ez du zerikusirik izanen Baztanekin: proiektuak bai, baina funtzionamendua bertakoa izanen da. Hortik aparte, gero boluntario horiekin programa batzuk martxan jartzen saiatuko gara. Bat izanen da bizileku eta egoitzetan laguntza ematea xahar jendeari. Ospitaletan ere boluntariotza programa. Bakarrik dagoen jendeari laguntza ematea. Beste programa bat boluntarioei zuzendutako prestakuntza da, eta gero, errealitateak erakutsiko digu zein programa berri martxan paratu».

MAIATZAREN 5ETIK 25ERA LAGUNTAILEAK LORTZEKO KANPAINA

Proiektua abian jartzeko hainbat bilera egin dituzte Malerreko gizarte eragileekin (Udalak, Malerreko Gizarte Langilea, Osasun Etxeko Gizarte Langilea, Malerreko Parrokiak...). Bilera hauen ondorioz, bule-

Isidro HERGUEDAS *Bidelagun-eko kidea*



Zer da Bidelagun?

Bidelagun, beharrean dagoenari laguntzeko boluntario taldea da. Talde plurala edo anitza da, akonfesionala, irabazi asmorik gabekoa eta izan nahi du bertako taldea, hemen sortua eta hemengo boluntarioekin egina. Gure helburua zaharrak laguntzea da, etxetan dauden adineko pertsona zaintzen dituztenak ordezkatzeko, elkarrekin egotea, solasa ematea, paseatzera ateratzea, konpainia egitea, gauza aunitz badira egiteko. Bigarren helburua da ezin duak laguntzea. Oraindik ez dugu hedatu, baina asmoa dugu.

Hirugarrena edozein talde bazterri laguntza ematea da. Gaur egun, batez ere etorkinak ditugu, inmigranteak, kanpotik datozenak.

Hainbat taldek parte hartzen duzue kultur aniztasunaren aldeko plataforma honetan: eskolak, sindikatuak, osasun etxeak, emakume taldeak eta udal zerbitzuak ere ari dira lanean...

Etorkinen mundu horretan kokatu behar da zuk erraten duzuna, multikulturitate programa bat lantzen dugu horren barnean. Hori aitzinera ateratzeko, gan den urtean Baztanen hainbat bilera egin genituen gizarte talde horiekin eta programa hori sortu zen. Orain guk prestatutako ekintza horiek egi bihurtzen ari dira eta fruitua ematen ari dira: eskolan egin dituzte gauza batzuk, ikastolan ere bai, euskara taldea hasi da etorkinekin, sindikatuarekin... mantso-mantso ematen diren pausuak dira. Bulegoan hainbat eta hainbat etorkin errezibitzen ditugu, beraien aferekin, eta laguntza ematen saiatzen gara.

“Etorkinei laguntzeko multikulturitate programa lantzen ari gara Baztanen”

goa lortu zuten, Doneztebeko Udalak emana eta Langarra taldearekin banatua Azkarreta etxean. Bertetik, boluntarioak lortzeko eta Bidelagun ezagutzera emateko kanpaina egingen dute maiatzaren 25a bitarte. «Foiletoak etxeetan banatu ditugu –dio Isidrok–, euskaraz eta erdaraz, Bidelagun elkartearen ezagutzera emateko xedearrekin, eta bigarrenik jendeak parte hartzeri animatuz. Boluntario bezala parte hartu nahi duenak bere izena ematen ahal du. Herri ttikietan boluntario talde bat sortu nahiko genuke. Akaso taldea osatzea zaila da, baina herri bakoitzetik bizpahiru pertsona beharko genituzke, taldearen begiak izateko, ikusteko zein premia dauden eta nola erantzun behar horiei. Animatu nahi duenak, 948 581327 edo 660 313225 telefonoetara deitu». Kanpaina akitzen denean, maiatzaren 29an eta 30ean bi hitzaldi egingen dira. Lehenbizikoa xaharrei buruz egingen da. Camino Oslé, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Lanaren Departamentuko irakaslea etorriko da. Bigarren egunean, etorkinak eta Bidelagun betebeharrak ariko da Vicente Blasco, Iruñeko Caritaseko Inmigratio Departamentuko arduraduna.

BOLUNTARIOEN PERFLA

Malerrekan boluntario premia du Bidelagun elkarteak. Xaharrekin, etorkinekin edo beharrean dauden edozein pertsonekin lanean ariko diren lagun horiek zenbait baldintza bete behar dituzte, Isidro Herguedasek aipatu digunez: «Boluntarioa izateko gauza batzuk eskatzen ditugu: pertsona xaloa izatea, bertzei errespetu osoa izatea, konfidentzialtasuna, hau da, gertatzen diren gauza guziak bere baitan gelditu behar dira, ez dio inori deus erran beharrik. Pertsona alaia eta lasaia izan behar da, umila eta gehien bat, humanoa eta solidarioa. Perfil hori eskatzen dugu. Animatzen den jendearekin solastuko dugu eta talde hori prestatuko dugu, zer den Bidelagun, zer den boluntario izatea, bere eskubide eta betebeharrak, nola hurbildu xaharri, hainbat eta hainbat gauza formakuntza barrenean».

Baztanen lau urteko esperientziak erakusten duenez, adinekoekin izanzen dute lanik handiena. «Adinekoa ongi eta zoriontsu bizi dadin laguntzea, bere ondoan joanez, bere bizitzako azken tarteak ahalik eta duinen iragan dezan helburuarekin». Inmigratio arlo an,



Etorkinen integrazioa sustatzea eta kultura berriak hartzean herritarrak sentsibilizatzea dira Bidelagunen helburuak.

«etorkina gurean hartu eta laguntzea, integrazioa sustatzea eta kultura berriak hartzean herritarrak sentsibilizatzea» izanzen da helburua, Isidro Herguedasek azpimarratu duenez.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidente: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena.
Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.
Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketak...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senperereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

UPN-ri botua eman?

Hauteskundeak badatoz eta hasi gaitezten horren inguruan solasten. Norbatteri botua emateko eskatzea libre da, ta ez emateko eskatzea ere zilegi izateko itxaropena dut, horixe egin nahi baitut nik.

Bat biño gehigori kezkatzen digu gure inguruan UPN-k jasotzen ditun botu kopuru izugarria, Baztan eta Maldaerreka inguruan alegia. Nahi den taldeari boza emateko askatasuna badagola erranen didazue, noski, ta horixe nahi dugu denok, biño UPN-k daraman bidia ikusita, hala ere botu mukurua biltzia, nolapatteko gaizki ulertua dela pentsatu nahi dut, hau da, ez tut pentsatu nahi hemengo jendia partidu hortako gobernuak itten ditun gauzen alde dagola, gure teilatura harriak botatzia gustatzen ezpazai gu beinpin... Bere ize nean "Navarro" hitza dagoelako ote? Edo jauntxo trajedunak, endelu haundikoak direlako ta hitz potoluak erraten badakitelakoz?

Gobernu honek egiñiko gauza trakets aunitz aipatu ditzaket, gehiegi, biño uste dut bizpairu nahiko direla berrari bizkarra emateko.

Alde batetik euskara eta euskal senaren kontrako politika, ez al dugu inguru hontan euskara, hori biño gehigo baloratzen? Modu hontan ankapan xeatu eta burla itten uzteko hainbat guttiesten al dugu gure hizkuntza?

Bertzalde, bizitzeko behar dena, dirua, ogibidea... Ez al gara kontratzen partidu honek,

ta seguraski PSN-k ere bai, gure ingurua atzen dua duela? Ez duela inguru hontan industriarik indartzeko asmorik, bertako jendeak lan bila kanpora alde egin ez dezan? ACERALIA ere poliki-poliki itsiko dute, orduan negarrak ta ortz karraskak! Ez al da bistan inguru hau turistentzat eskaparate bat bertzerkez dutela nahi?

Ta akitzeko bertze adibide ttikixego bat: errepideak, doneztebetik Beintzara doaiena, ez al da lotsagarria? Bizikleta karrerak esperatu behar al dittugu hori konpertzeko?

Mesedez, zentzu pixko bat izan, eta ez eman botorik gure alde deus eta kontra aunitz egitten duenari, denentzat hobe izanen da eta. Zer gehigo nahi du UPN-k, batere lanik egin gabe botuak biltzen badittu?

Ez eman bozarik UPN-ri.

Zorrozkilia.

Noiz arte!!!

Atzo Egunkaria, gaur Udalbiltza, bihar 250 hautes zerrenda ta hurrengo zer edo nor?

Euskal kirolariak, futbolaria, pilotariak, harri jasotzaileak ta gero idazleak, musikariak, ikasleak!!...

Bainan bainan noiz arte segiko dugu, segituko dute bide hortatik.

Ni behintzat amesten duten gauza bakarra: Herriak, zahar ta gazte, eskubide ta eragile sozial berri erakutsi behar dugula kalean, egin dugun bezala Donostian (Egunkariaren Alde) gure haserrea ta oihuka-

tzen guk euskaldunok, baita mundu osoan berrreskuratu behar ditugula bizian diren balore ta prinzipio handienak: Askatasun intelektuala ta praktikua, Elkarren Errespetua, Tolerantzia, diferentzien onarpena, leialtasuna, orokorrean zintotasuna ta zuzentzasuna.

Desagertu dadila munduan osoan bizi dugun: Faltsukeria, Egoismoa, Ustelkeria, gezurrak, manipulazioak ta... lista luzea da...

Esan behar dugu goi kargu politiko, ekonomiko horiei Nazkatuta gaudela horien kalkulato elektoro/politiko/ekonomiko...ta abar

Nahiko jolastu dutela ta Momentua iritsi dela, gure herriak nahiko indar ta gogo duelakotz, euskaldunok mundu osoan duen irudi hori berrreskuratzea!!

Gu euskaldunok simple ta ustez garaibateko baloreak praktikan eman ez lortuko dugu mundua ta gizartea bideratzea!!

Kristian AMORENA
(Musikaria)
SARA

Baztan Kirol Taldeak esker onez

Maiatzaren 2tik 4ra Elizondan emakume eskubaloiko igoera fasea antolatu eta jokatu dugu. Hori gauzatzeke ezinbertzekoa suertatu zaigu klubaren kanpotik ailegatu zaigun laguntza. Hori dela eta, Baztandarren Biltzarra elkarteari, Baztango uda-

lari (kirol koordinazio bulegoari batipat), Nafarroako Eskubaloi Federazioari, San Francisco Javier Ikastetxeari (Isabel, Patxi...), C.D. Baztani, Panificadora Baztanenari, Txemari (ostatu hornitzailea) Ttipi-ttapani, Luis Mariri (gure behin behinoko zuzendaritza batzordea), Jexux Bailoni (prentsarako lotura), Rodri musika-megafonia teknikariari, Asier eta Katalunyak bideo grabatzaileei, Begoña, Aitziber, Nerea, Aintzane, Maite eta Asierrri (fisioterapia eta masaje emaleak), Ixa Barberenari (gure dietetika aholkulari fina), eta batez ere kiroldegiko arduradunak diren Jose Luis, Enkarna eta Dani, kiroldegian lan handia egitera behartu ditugulako, gure klubeko kadete mailako jokalariei (ah, zer laguntza!) eta kiroldegira hurbildu zareten gutziei, ESKER MILA!!!

BAZTANGO KIROL TALDEAK



• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Gara 2003-05-14

«Lampre taldean hagitz gustora nago. Banestori beti eskertuko diot aukera ematea, inork nahi ez zidanean. Baina, segituko nuen edo ez jakin gabe, urte honetarako taldeak zuen filosofia ez zen nere gustokoa eta Lamprera joatea erabaki nuen. Erabaki horretan eragin handia izan zuen Juanma Garatek, afizionatuetako hirugarren urtetik lagun handiak baigara».

Patxi VILA
Berako txirindularia
Gara 2003-05-14

«Pilotan, eskumotzik edo tontorik ez da. Goian zaudenean, besteak zure akatsak bilatzen saiatzen dira. Gehiago begiratzen zaituzte eta gehiago ezagutzen zaituzte, detalle tikiak ere aztertzen dituzte eta sorpresa ematea zailagoa da. Behetik heldu denak, aldiz, ustekabeen hartzen ahal ditu arerioak. Aimarrek, adibidez, ahozabalik uzten ari gaitu guztioi.»

Abel BARRIOLA
Leitzako pilotaria
Gara 2003-05-14

• 11 GALDERA LABUR •



Patziku BENGOTXEA *Urdazubiko herri kirol epailea*

- Noiztik herri kirol epaile gisara?**
1988. urtetik, hamabortz urte beraz.
- Aitzinetik herri kirolean aritua zara?**
Bai, sokatiran aritu nintzen 1981etik 1988ra, Zuraideko Iparralde taldean.
- Herri kiroleko epaileak futbolekoak bezain kritikatuak al dira?**
Kasik berdintsu, beti bada zer bait.
- Epaitzen zailena den herri kirola?**
Sokatira. Hamasei lagun eta entrenatzaileak kontrolatu behar dituzu.
- Gehien maite duzun herri kirola?**
Sokatira, beti hortan aritu naiz eta.
- Ezagutu duzun kirolaririk onena?**
Bere garaian, sokatiran Manuel Amaiurko zageroa arras ona zen.
- Herri kirolean apostuak bai ala ez?**
Aizkoran eta idi probetan egiten dira, baina nik konpetizio ofiziala nahiago dut.
- Lur gaineko sokatira txapelketa eka- rri duze Urdazubira. Lur gainekoa edo goma gainekoa nahiago?**
Lur gainekoa, hortik hasi zen eta ikus- garriagoa iruditzen zait.
- Urdazubin sortua, Baztanen bizi... Urdazubi ala Iruritako Salbatoreak?**
Urdazubikoak noski.
- Guardasola ez ezik, zer gehiago be- harda Salbatoreak ongi pasatzeko?**
Besta gogoa.
- Besten antolaketan ere ibili zinen. Zer somatzen duzu faltan oraiko bestetan?**
Orain gazteentzat gaueko besta da. Le- hen egunez ere antolatzen ziren gau- zak denentzako: pilota, sokatira...

I CHE
MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA
ZERBITZUAK**
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortziriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404
☎ 900 704704

TEL K E
K MISET K ISE K
N HI UZUNK U U. NEU I ET ISEINO ERIN
Ezt r z h T l. F x 3 15 21

INJOME - GOZOTEKIA

Altzate, 19•948630786 •BERA

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako
aholkularitza-zerbitzua
hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • **LESAKA**

LESAKA

KULTURA

Nafarroako XVII. Bertso-paper lehiaketako sariak banatu dira

Larunbat honetan, maiatzak 24, bapateko lehiaketa egingen da Elizondon

ttipi-ttapa

Nafarroako 49 ikastetxeko 1.080 ikasleren lanak aurkeztu dira Nafarroako XVII. bertso-paper lehiaketan. Nafarroako Bertsozale Elkartek, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren laguntzaz antolatutako lehiaketa honetan Leiza, Goizueta eta Larraun aldeko 7 ikastetxeko 173 bertso lan aurkeztu dira, Baztan eta Malerrekako 9 ikastetxeko 60 lan eta Bortzirietako 7 ikastetxeko 147 lan, Nafarroako bertze eskualdeetakoekin batera. Ohikoa denez, eskualdera hainbat sar etorri dira, kategoriaz ezberdinetan.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailan, Lesakako Tantarumairu ikastolako Oihan Olaizolak eskuratu du lehen saria eta Baztan Ikastolako Oihana Santxotena hiruugarrena.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan, Goizuetako eskolako Xumar Bakerok lortu du lehen saria.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan kasik sari gehienak inguru honetako ikasleentzat izan dira. DBHko lehen eta bigarren mailan, Berako Labiaga Ikastolako Saioa Baleztenak erdietsi du lehen saria, Doneztebeko Mendaur Institutuko Alazne Untxalok bigarrena eta Leitzako Amazabal Institu-



ARGAZKIA: AITOR

Bertso-paper lehiaketan Bortzirietan sarituak suertatu diren bertsolari gaztetxoak, maiatzaren 8an Berako Kultur Etxean egindako sari banaketaren ondotik.

tuko Arkaitz Olanok hiruugarrena. DBHko hiruugarren eta laugarren mailan, Leitzako Institutuko Gari Etxeberria-

rentzat izan da lehen saria eta ikastetxe bereko Jon Narbarerentzat hiruugarrena.

Sari banaketa eta ira-

bazle suertatu diren bertsoen kantatzea eskualdez eskualde egin dute: maiatzaren 5ean Leitzan, 7an Elizondon eta 8an Beran.

Maiatzaren 24an, larunbatarekin, bapateko bertso lehiaketa egingen da Elizondon bi kategoriatan banatuak: 14 urte bitartekoak eta 14 eta 18 urte artekoak.

LANA

Apirilean 577 langabetu INEMen

Apiril akabailan 577 lagunek emana zuten izena Doneztebeko INEMen, martxoan baino 59 guttiagok. Nafarroan ere dexente beheiti egin du langabetuak, aitzineko hilabetean baino 1.088 lagun guttiago baitzeuden lanik gabe, 17.254 guzira.

Langabetuen adinari dagokionez, eskualdean 25 urtez beheitiko 58 gizaseme eta 39 emakume eta 25 urtez goitiko 193 gizon eta 287 emakume zeuden langabetuz martxoan. Beraz, sexu eta adin sektore guzietan somatu da langabetuen beherakada, martxoan konparatuz. Sektoreka, zerbitzu arloan zeuden langabetu gehienak, 312 pertsona. Industrian 177 langabetu zeuden, eraikuntzan 48 eta nekazaritzan 6, aitzinetik lanik egin gabeko 34 langabetuekin batera.

Martxoan 309 kontratu berri egin ziren eskualdean, baina horietatik 46 bakarrik ziren mugagabeak.

Berako 1go **AEROBIK** maratola
1er maratón de AEROBIC de Bera

ekainak 7, larunbata • sábado 7 de junio

Arratsaldeko Setatik Berara. De 5 a 8 h. de la tarde.

Toki Osa Sidal Kiroldegian Polideportivo Municipal Toki Osa

ESOTA: 4€ • GOTOA: 4€

ANIMATU ZARITEZ ETA ERATU! JANIARAZI 9 YEN!

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 407 404 781

Rafa
600 819 640

PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

BERA

IX. Mugaz Gain antzerki jaialdia maiatzaren 15ean hasi zen

Maiatzaren 29 eta 30ean, inguruko antzezle gazteak ikusteko modua

Amaia eta Ainhoa

Bederatzi urte badi-tu dagoeneko Mugaz Gain antzerki jaialdiak. Lamixinek, Berako Kultur Batzordearen laguntzarekin, antolatzen duen jaialdiaren IX. Edizioa den hau, maiatzaren 15ean hasi eta 30era bitarte luzatuko da. Maiatzaren 15 eta 16an goizean aritu ziren gazteak, Berako Antzeko Parezido, Lau Kato, Anonimak, Zizurko San Fermin eta Lesakako Tantirumairu Ikastola-koak hain zuzen. Maiatzaren 16an, arratsaldean, jende guztiak ikusi ahal izan zituen berriz ere Anonimak "Hau Beroaldia" eta Lau Kato "Zer gertatu da?" lanak antzezten. Arratseko 10etan berriz, Antzeko Parezido eta Donibane Lohitzuneko Sacaramuccia taldeek tes-



ARTXIBOKOA

Inguruko antzezle gazteek urte osoan egindako lana taularatzeko modu polita da bederatzigarren urtea bete duen Mugaz Gain antzerki jaialdia.

tu erotikoen irakurketa-ekin akabera eman zioten egunari Matxiarena ostatuan. Datorren maiatzaren 29 eta 30an Bera eta Lesakako eskoletako haurrak aritu-

ko dira (Tantirumairu, Labiaga, Rikardo Baroja eta Jesusen Bihotza-koak). Bi egun hauetan, goizez ikastetxeendako emanaldia egingen da. Arratsaldez, atea be-

rriz ere zabalduko dira eta nahi duena joan daiteke Kultur Etxera, arratsaldeko 18:00etan aintziner, haurrak aktore lanetan nola dabilzan ikustera.

FLASH

Berako sarrera berriz itxia

Arkaitza eta Funvera lantegien ondoan dagoen sarrera berriz ere itxi dute. Duela aste batzuk norabide bakarreko bide hori ideki zuten obrak akautu zirelako baina badirudi kanpoko jende aunitz kontrako norabidean sartzen zela. Hori ikusita, seinalizazio egokiak jarri arte itxia egonen da bidea.

Udal hauteskunderik gabe

Maiatzaren 25ean egingen dira udal hauteskundeak. Beran, Beraiñez plataforma izan zen zerrenda aurkeztu zuen talde bakarra, baina legez kanpo utzi zuten ez da bozkatzeko aukerarik izanen.

Gazte Eguna

Maiatzaren 31an egingen den Gazte Egunarako izena emateko epea maiatzaren 26an akautuko da. Parte hartu nahi duten koadrilek Kultur Etxera hurbildu beharko dute 16:00etatik 19:00etara. 10 € ordaindu behar dira partaide bakoitzeko poteo eta afaria barne.

Berako I. Aerobitoia

Ekainaren 7an ospatuko da Berako I. Aerobitoia. Toki Ona Kiroldegian egingen da, 17:00etatik 20:00etara eta aerobic egitea gustokoa duen edozeinek parte har dezake. Izena ematerakoan 4 euro ordaindu beharko dira.

KULTURA

Berako Kultur Batzordeak irudi korporatibo berria aukeratu du

Honakoa da hemendik aitzinera Berako Kultur Batzordeak erabili-ko duen irudi korporatiboa. Aurkeztutako 28 lanen artean, Aitor Divasson eibartarrak egindako lanak irabazi zuen ideia lehiake-

ta, 500 euroko saria eskuratuz. Ondotik etorri zen berekin lan egitea eta ideari egindako ekarpen eta aldaketekin sortu da egungo irudia. Apal baten gainean dauden hiru



liburu irudikatzen ditu logotipoak. Bi libururen artean, Berako «b» hizkia ageri da.

Alzuri
 Sukalde tresneria eta opariak
 Landare eta loreak
 Tfnoa: 948 630 370
 BERA

KORTA
 AROZTEGI METALIKOA
 CARPINTERIA METALICA
 Tfnoa: 948 631 861

Javier Manterola
 TEKNIKO
 INSTALATZAILEA
 iturgintza • gasa • kalefakzioa
 Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

LESACA

Kultur eta kirol elkarteentzako dirulaguntzak banatu ditu Herriko Etxeak

Bidasoako Musika Eskolen III. Topaketak 600 musikari bildu ziren

Aitor AROTZENA

Udalak kirol eta kultur elkarteei aurtengo dirulaguntzak banatu dizkie, elkarte hauek aurkeztutako programak ikusi eta Kultur Batzordearen iritzia kontuan hartuz.

Kultur elkarteei dagokionez, Abesbatzak 1.803 euro jasoko ditu, Giltzarri Abesbatzak 150 euro, txistulariek 1.983 euro, akordeolariak 902 euro eta Musika bandak 2.404 euro. Honetaz gan, musika tresnak eta konponketak ordaintzeko 721 euro eta tronboi, tuba eta bombardino irakaslearendako 2.163 euro jasoko ditu musika bandak. Musikariek akautzeko, trikitilariak 1.202 euro jasoko dituzte.

Antzerki tailerrak 1.803 euro jaso zituen. Herri Eskolako ikastaroek ere dirulaguntza jasoko dute, geriatrikoak 405 euro, sukaldaritza 259 euro eta irratigintza edo ordenagailu bidezko diseinu ikastaroak 414 euro.

Irain Guraso elkarte-

ak antolatutako ekitaldi ezberdinek honelako dirulaguntzak izanen dituzte: sexu heziketak 270, gurasoentzako heziketak 324 euro, margo lehiaketak 216 euro, natura tailerrak 300 euro, Kontu Kontari antzerkiak 480 euro eta igeriketak 660 euro. Otxogorriena Guraso Elkarteari dagokionez, Txoko Txiki lehiaketak 618 euro jasoko ditu, Pi-pergorri aldizkariak 270 euro eta igeriketak 545 euro. Bi Guraso elkarte hauek 1.500 euro jasoko dituzte Haurren Eguna antolatzeko.

Tantirumairu Folklore Taldeak 1.803 euro jasoko ditu Tantirudantza antolatzeko.

Arrano elkarteak 1.600 euro jasoko ditu Zakozaharrak antolatzeko, 901 euro antzerkiagatik, 180 euro Asisko Urmeneta eta kike Amunarrizen solasaldiarengatik eta 90 euro erakusketarengatik. Bai Euskarari elkartearen literatur lehiaketak 300 euro jasoko ditu. Euskara Batzordeak



1.400 euro jasoko ditu antzerkia antolatzeko. Elaiia elkarteak 800 euro hartuko ditu elikadurari buruzko jardunaldiak prestatzeko. Musika eskolak 5.000 euro jasoko ditu Bidasoaldeko Musika Eskolen Topaketa antolatzeko eta 3.400 euro topaketa honetako kamisetak eta materialagatik.

Kirolari dagokionez, Eguzki Elkarteak 1.803 euro hartuko ditu Agiñako Rally Sprinta prestatzeko. Arkupe Pilotazaleen Elkarteak 1.202 euro jasoko ditu. Batzoki Elkarteak 1.800 euro hartuko ditu Herri Lasterketa antolatzeko, 523 euro paleta goma txapelketa antolatzeko eta 87 euro Nafarroako Paleta goma txapelketarengatik. Habla en cristiano erakusketarako 2.700 euro jasoko ditu Batzokiak eta 180 euro solasaldi batengatik.

San Fermin jubilatuek 601 euro ja-



ARGAZKIA: AITOR

Maiatzaren 10ean egin zen herrian Bidasoaldeko Musika Eskolen III. Topaketa. Guzira 600 musikari inguru bildu ziren, Hondarribia, Irun, Hendaia, Bera, Lesaka, Doneztebe eta Elizondoko eskoletakoak. Heldu den urtean Topaketa antolatzeko lekukoa, Doneztebeko Agorreta eskolak hartu zuen.

soko ditu soinketa ikastaroarengatik.

Beti Gazte elkarteak 12.020 euro hartuko ditu urteko ekitaldi orokorarengatik. Sokatira finala Lesakan antolatzeko 1.200 euro hartuko ditu, udako kirol eskolarengatik 601 euro, xake txapelketarengatik 1.201 euro, kirol koordinatzaile lanengatik 1.800 euro, Nafarroako

xake txapelketa taldeka antolatzeko 600 euro eta futboleko udako campusengatik 4.000 euro.

Bortziriak Pilota Elkarteak 150 euro hartuko ditu, Santa Zezilia batzordeak 901 euro, Txalaparta Aisialdi Taldeak 505 euro eta Liburutegiak, Liburuaren Eguna antolatzeko, 300 euro.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESACA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESACA

ANIA
Janaridena
Bittiria 41 • 948 637518 • LESACA

XATURETXEA
ZAZPI
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESACA

BOBEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa · LESACA
Tfnoa: 948 637826

ETXALAR

Ekainaren 1ean eginen da XI. Gasna Feria Eguna

Ekitaldi kultural ez blai heldu zaigu maiatzaren hondar asteburua

Joseba eta Nerea

XI. edizioa izanen du aurten Altxata Kultur Elkartek antolatzen duen Gasna Feria eguna. Urtero bezala, goizean goizetik izanen da mugimeta plaza bazterrean. Inguruko herritatik hurbilduko diren hainbat eskulangileek euren postuak paratuko dituzte frontoian eta ikusgai egonen dira goizean. Bertzetik, egun honen funtsa gasna lehiaketa denez, eskualdeko gasnagile andana etortzea espero da, euren gasnak lehiaketan aurkeztera. 13:30etan eginen da sari banaketa. Aitzinetik herriko trikitilarien emanaldiaz gozatzeko aukera izanen dute frontoira hurbildutakoek. 14:00etan bazkari herrikoari emanen zaio hasiera. Bazkari honetara joan nahi dutenek Altxatako junta-kideengana jo beharko dute edo bertzelan Herriko edo Elutsa ostatueta erosi.

Bazkalondoa alaitzen Julen Zelaieta eta Manolo Arotzena bertsolariak arituko dira. Eguna akautzeko herriko Andra Mari dantza taldearen saioa ikusi ahal izanen dugu arratsaldeko seietatik aitzinera. Egun osoan zehar eskulane-tan ibiltzen diren emakumeek ikasturte honetan egindako lanak ikusgai egonen dira Andra Mari elkartearen.

Herriko bestetako argazki bilketa

Herriko besten inguruko argazkien bilketa egiteko deialdia egin du Kultur Etxeak. Andre Mari besten inguruan erakusketa bat egin nahi da eta horretarako herriarrek dituzten argazki guztiak bildu nahi dituzte. Jabier Iriarte Kultur etxeko arduradunak erran digunez «*era guzietako argazkiak onartzen dira; garai desberdinetakoak, xuri beltze-*



ARTXIBOKOA

Argazki honen gisako bertzeren bat baldin baduzue Kultur Etxera eramaten ahal duzue.

an, koloretan... beti ere herriko bestak baldin badituzte ardatz nagusi». Beraz, dantzarien argazkiak, haurrenak, herri-afarikoak, asaukoak edo bertzelakoren bat izanez gero eraman Kultur Etxera, arratsaldeko 16:00etatik 19:40ak arte, heldu den abuztuan eginen den erakusketa hori ahalik eta hobekien gelditzeko jendearen kolaborazioa behar-beharrezkoa da. Animatu.

Ikastaroak puntu teknologikoan

Jabier Iriarte Kultur Etxeko arduradunak maiatza bukaerako mintegi bat antolatu du "Eus-

kara ziberespazioan" izenburupean. Euskarak interneten duen lekua erakutsiko du (bilatzailetan, hiztegi eta datu baseetan...) 5 ordu iraunen duen mintegi honetan. Honetaz gain, ekainaren 9tik 20ra Microsoft Word-en inguruko bertze ikastaro bat ere prestatu du, 25 ordukoa. Izena emateko epea irekia dago oraindik.

Koadro erakusketa Kultur Etxean

Eli Mendia, Maribel Aranguren eta Itziar Mendikoaren eskutik, koadro erakusketa bat paratuko da Kultur Etxe-

an Gasna Feriko aste bukaeran. Hiru margo-lari generazio biltzen dituen erakusketa goizeko 10:00etatik arratsaldeko 17:00ak bitartean izanen da ikusgai Kultur Etxeko bigarren solairuan.

Antzerkia Kultur Etxean

Heldu den maiatzaren 31n emakume baserritar batzuk prestatutako antzerkia ikusgai izanen da Kultur Etxean arratseko bedetzetan. "Baserritik baserrira" izenburupean, 6 sketch antzeztuko dituzte baserritar hauek. Sarrera dohainik izanen da.

EDARTAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63. 10. 27

J. RAMOS
zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditudu

Tel: 948 631 342 BERA - Tel: 948 637 173 LESARA

ie Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

HERRIKO

OSTATU - JAIETZEA

Antzerkiak: 15 € - 948 63 10 27
Tel: 948 63 10 27

IGANTZI

Maiatzaren 31n ospatuko da Biltokiren 25. urteurrena

Bazkideen partehartze handia espero da egun horretarako

Oskar TXOPERENA

25 urte joan dira da-goeneko herriko erreferentzi nagusienetako bat den Igantziko Biltoki Elkartea sortu zenetik. Ez dio inork ukatuko Biltokiri herriko kulturaren, kirolaren eta, azken finean, elkarbizitzan mende laurden honetan izan duen protagonismoa, eta astero bere aretoetan egiten diren bizpahiru bilkurak dira horren lekuko. Gehiago izatera ere iritsi baldin bada ere, 200 bazkide inguru, herriaren herena, ditu gaur egun elkarteak. Sortu zenetik momentu onak eta pataalak bizi izan ditu, baina gaur egun garai gozoan, osasuntsuan sartua dela erraten ahal da.

Maiatzaren 31n ospatuko da Biltokiren 25. urteurrena. Xehetasun handitan sartu gabe, bazkideek launaka partehartzeko ekitaldiak prestatu ditu juntak gozerako, gosaria barne. Gero bazkaria izanen dute, bazkideentzat soilik, eta ondotik musika.

Eskolako berriak

Aste honetan kanpaldian daude edo etorri berriak dira eskolako haur guztiak. Haur Hezkuntzakoak astelehen eta asteartea, 19 eta 20a, Hondarribiko udalokuan pasatzekoak ziren. Lehenbiziko eta bigarren ziklokoak Lizarran egonen dira 21etik



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Maiatzaren 10ean egin zen kontsultategi berriaren irekitze ekitaldia. Nafarroako Gobernuaren ordezkariak, Udalbatza, zonaldeko osasun arduradunak, herriko arkitektoa eta bertze hainbat lagun egon zen bertan. Agintariek egindako hitz batzuren ondotik, apaizaren bedeinkapena eta dantzarien saio ttiki bat izan ziren ekitaldiaren ardatza. Kontsulta berrian lanean hasteko xehetasun ttiki batzuk bertzerik falta ez direnez, laister kontsultak bertan pasatzea espero da.

23ra bitartean eta eskolako handienak Zuzun 20tik 23ra arte.

Gurasoen Elkarteak, ikasturteko azken bilkura egin zuen maiatzaren 15ean. Bilkuraren zatirik handiena jantokiko gaien inguruan

eman zuten gurasoek eta ikasturte akabilako ateraldia noiz egin ere erabaki zuten: ekainaren 20an, Erriberriera seguraski.

Bertzalde, Nafarroako Bertsozale Elkarteak antolatuta, maiatza-

ren 8an banatu ziren Bortziriei zegozkion sariak. Naiara Telletxea, Naroa Loinaz eta Olaia Matxikotek aipamen berezia izan zuten, eta Beñat Txoperena Bortzirietako irabazle suertatu zen 3. zikloan.



PERTSONAIA

Jose Mari YANCI

Otsailean egin zuen urtea lehendakari lanean hasi zinenetik. Nola bizi izan duzu esperientzia berria?

Lan berri hau niretzat hagitz positiboa izaten ari da. Hasiera batean erresponsabilitatea nabaritu egiten da, baina lanerako hagitz talde onak egokitu zaizkidanez, gustora ari naiz.

Zuei egokitu zaizue 25. urteurrena prestatzea. Zer izan da eguna antolatzerakoan zuen helburua?

Hasieratik garbi izan dugu zein izan behar zuen ospakizunaren helburua: bazkideari omanaldia. Halere, ez da erraza izaten hori nola gauzatu erabakitzea. Gauza aunitz pentsatu ditugu baina azkenean, konpliazio handietan sartu gabe, egindako egitaraua iduritu zaigu egokiena. Izan ere, akaso batzuk bertzeak baino neurri handiagoan, baina Biltokiren hiru atal nagusiak sartuko dira egun horretan: kultura eta kirola, gastronomia eta denborapasa. Bazkide gehienek parte hartzea gustatuko litzazuke eta egunaz elkarrekin gozatzea.

ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Laudio pinturak

Pintura orokorrean
Fatxadak. Auzo elkarteak.
Etxebizitzak:

- Barraztuak.
- Paper lanak.
- Gotele.
- Estukatuak, etabar.
- Hormak launear.

948 637 266
610 62 70 58
LESKA

BORTZIRI
UNSION ANAIK

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

ARANTZA

Arantzako I. Mendi Itzuliak herria inguratuko du ekainaren 8an

Tontorrez tontor, «Arantzako Zirkua» osatzeko aukera izanen da

Nerea ALTZURI

Ekainaren 8an estreineko aldiz mendi itzulia egingen da, Herriko Etxeak, Gazte Asanbladak, Ekaitza elkarteak eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak antolatu eta lagunduta. Herritarrentzat ez ezik herrikoak ez diren mendizaleentzat ibilbide polita ezagutzeko aukera emanen da. Arantzako plaza-Anibar-Unanu-Itsaszelaia-Izu-Oilargaia-Ibintza-Ekaitza-Ilurdi-Zepuru-herria dira itzuliaren puntuak, eta Mendaurrea igotzea aukerakoa izanen da. Ibilbidean parte hartzeko bortz euro ordaindu beharko dira eta ibilbidea 7:00etatik 8:00etara irekiko da, 6:30etatik 8:00etara izen ematea egiten ahal delarik. Kontrol postuak, jateko tokiak eta osasun guneak izanen dira seinalizatua izanen den ibilbidean eta itzuliaren akaberan, luntxa emanen zaie partehartzaile guzietan. Bortz ordu terditik



Herriko Euskara Batzordea, Egunkari berriaren aldeko ekimenetan parte hartzen ari da. Material salmentan eta harpide berrien zerrendan lan eginda, akzio kanpainan murgildua dago. Herrian, 50 euroko zazpi akzio eta 300 euroko 13 akzio saltzea da helburu. Ea guziok batera lortzen dugun helburua, heldu den hilabetean kioskoan euskarazko egunkari berria izan dezagun.

zazpi ordu bitartekoa da mendi itzulia. Informazio gehiago udaletxean (948 634005), Aterpen (948 634179) edo www.arantza.net web orrian.

Idazlan sarituak

Ekainaren 1ean Bortzrietako Bai Euskal Herriari taldeak eta Bortzrietako Euskara Mankomunitateak antolatu «Herriak eta Hizkun-

tzak» literatur lehiaketaren sari banaketa izanen da. Aitziber Almandoz Larralde gazteak, 16-20 urte bitarteko bortzietarren saria lortu du, Xorroxin eta Ttipi-ttapa saria, alegia, «Nire hizkuntza eta nire herria» kronikarengatik.

Bertzalde, Aintzane Iturria Iparragirre. Toki Ona institutuan bigarren batxilergoko ikasle denak «Kontakizun histo-

riko bat idatz ezazu» lehiaketan euskarazko lanik onena egin du. Nafarroako Unibertsitateko Historia eta Artearen Historia sailek bultzatutako sariketa honetara «Oroimenean murgilduz» idazlana aurkeztu zuen. Narratzaileak bere haur denborako oroitzapenak hartzen ditu oinarri, guda zibileko garaia hartuz eta herriko giroa kontatuz.

FLASH

San Isidro Eguna

Urtero bezala herriko nekazariak igantziarrekin batera ospatu zuten San Isidro eguna. Urteko urtera txandaka antolatzen dute bi herrietan egun hau eta aurten Arantzari egokitu zaio. Eguraldi zoragarriarekin, eguerdian meza izan zen eta gero bazkaria Zahar Txokon. 50 bat lagun bildu ziren bazkaltzera eta egun polita pasatu zuten, nekazari lanak utzi eta merzetako atsedena hartuz egun seinlatu honetan.

Arau Urbanistikoaren aldaketa

Maiatzaren 3an bilera informatiboa izan zen Herriko Etxean. Udala herriko arau urbanistikoaren aldaketa tramitatzeko ari da, etxebizitzak egiteko aukera handitzea delarik aldaketa honen helburua.

Ur-araztegia berriua

Anguleroaren ondoan araztegia edo depuradora berriaren instalazioak eta funtzionamendua ikusteko aukera izan zen zen maiatzaren 15ean, bisita gidatuak antolatu baitzuten Herriko Etxeak goizean herritar guzientzat.

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

BORTZIRIAK

Oskar Goñiri elkartasuna adierazi dio Berako Euskara Batzordeak

Euskalgintzaren alde egin duen lana azpimarkatu nahi dute

ttipi-ttapa

Jakina denez, Udalbiltzaren kontrako operazioaren barrenean Oskar Goñi Petrirena beratarra atxilotu eta auziperatu dute. Oskar Goñi Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakitzailea eta Berako Euskara Batzordeko kidea den aldetik, «batzorde haue-
tan eginiko lan eskerga eta oro har euskalgintzan eginikoa» azpimarkatu nahi izan du Berako Euskara Batzordeak. Horrez gain, gogor salatu nahi du «atxiloteta bidegabe hau, bere errugabetsun presuntzioa ez baitute errespetatu». Berako Euskara Batzordeak elkartasuna helarazi nahi dio Oskarri, bere familiari zein operazio berean atxilotutakoei. «Etengabeak dira euskararen alde, kulturegintzan eta herrigintzan lanean ari direnek ordaindu beharreko bidesaria gero eta garestiagoa da» dio idatziak.



ARTXIBOKOA

EHNEko idazkari nagusia zen Patxiku Irisarri etxalartarrak bere kargua utzi zuen maiatzaren 13an «ezinezkoa izan zaiolako erakundea proiektu bateratu baten inguruan biltzea», prentsa oharrean azaltzen zenez.

ADINEKOAK

Urrezko eta Diamantezko Ezteiak ospatzen dituztenak omenduko dituzte Lesakan

Aurten Urrezko eta Diamantezko Ezteiak ospatzen dituzten Lesakako senar-emazteek omendaldia jasoko dute ekainaren 5ean. Nafarroako Kutxaren «Club Edad de Oro»k urtero antolatzen

du besta honetan lau bikote omenduko dituzte aurten. 50 urte esposaturik bete dutenak Jose Maria Irazoki Telletxea eta Mari Carmen Irazoki Telletxea, eta Jose Maria Ameztoui Irisarri eta Maria

Ubiria Altzuguren izanen dira. Ezkondurik 60 urte betetzen dutenak, berriz, Santiago Etxepetelku Pikabea eta Estefania Telletxea Estrada, eta Ramon Andueza Telletxea eta Martina Errazkin Otxoteko dira. Goizeko meza ondoren, bazkaria izanen da udal pilotalekuan.

Zakurren txerto kanpaina

Zakurren errabiaren kontrako txertoa eta identifikazio mikrotxipa ezartzeko kanpaina egin behar da Arantzeta, Igantzi eta Lesakan. Arantzeta, maiatzaren 26an, Bordalarean eta herrian, maiatzaren 27an Aientsan eta herrian eta maiatzaren 28an Angule-roan izanen da. Igantzi, Irisarri maiatzaren 27an, Berrizaunen 28an eta herrian 29an egingen da. Lesakan, ekainaren 2an Auzoberrin, Zalan eta Nabazen. Ekainaren 3, 4 eta 5ean suhiltzaileen ondoan izanen da al-baitaria.

Lau hilabete baino gehiagoko zakurrak nahitaez txertatu behar dira bi urtero.

Elizatxo hiribidea, 14-16 ▼ 20303 Irun ▼
Tfa: 943-628-411 Faxa: 943-628-432 ▼ irungolasalle@ilsalle.org **irungo la salle**

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOETARAKO Aurre izen-ematea Ekainaren 2tik 11ra

ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA
Mekanizazioa
Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA
Mekanizazio Bidezko Ekoizpena
Elektronika eta Sistema Automatikoak
Administrazio eta Finantzak

KALITATEZKO HEZKUNTZA **HETEL** **Euskadi**

XI. GASNA ETA ARTISAU FERIA

EKAINAREN 1ean
ETXALARREN



Altxata
ETXALARKO KULTUR ELKARTEA



Lan etorkizuna ziurtatzeko biderik seguruena

Gure etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. **BIDASOA Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak** hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.

KALITATEA

BIDASOA Institutuak Kalitatean oinarritutako gestio-ereduen aldeko apustua egin du. Izan ere, **ISO 9000 ziurtagiria**, Eusko Jaurlaritzak ematen duen **Zilarrezko Q Saria** eta orain berriki jaso den **Kalitatearen Estatuko Lehen Saria** horren lekuko dira. Beraz, EA-Eko eta Estatu osoko irakas-kuntzarekin konparatuz, punta-puntakoa da Bidasoa Institutuaren kalitatea. Hezkuntza Sailak Ikerketa eta Esperimentazio Zentru izendatua du, irakaslearen autogestioa bultzatu bidenabar, emaitza hobeak eta baliabideen probetxamendu osoagoa eskuratzen duelako.



Elizatxo, 10 20303 IRUN (Gipuzkoa)

Tfnoa.: 943 666 010 • Faxa: 943 615 380 • e-Posta: secretaria@fpbidaso.org

IKASKETA ESKAINTZA

Bidasoa Institutuak eskaintzen duen goi mailako prestakuntza teknikoari esker, ezagutza eta formakuntza ona duten teknikoak sortzen ditu, lehiakorrak eta gure inguruko enpresentzat estimu handikoak diren teknikoak.

Era berean, lanean ari diren langileentzat *Prestakuntza Iraunkorreko Ikastaroak*; lanik gabe daudenentzat *Lanerako Prestakuntza* eta *Prestakuntza Teknologia Berrietan*, guztietan homologatuak.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Teknologia Berrietan buru-belarri sartua dago Bidasoa Institutua, eta baita Euskadiko berrikuntza teknologikoari buruzko proiektuetan ere: zuntz optikoaren bitartez programen transmisioa CNC makinei; irudi, hots eta datuen aldibereko transmisioa irrati, intranet eta internetez; bio-eraikuntza; eguzki-zentral fotovoltaiako eta termikoen sarearekiko konezioa; ahotsa interneteko teknologia bihurtzen; elektizitate arloen eta areto orokorren domotizazioa; errendimendu handiko ikasgela; e.a.

NAZIOARTEKO TRUKAKETAK

Leonardo eta *Sócrates* programen bitartez, 40 beka baino gehiago bideratu ditu Alemania, Finlandia, Frantzia, Suedia, Britainia Handia eta Grezian. Horrek agerian uzten du Bidasoa Ins-

titutuaren nazioarteko proiektzioa eta prestakuntzarik kualifikatuena bilatzeko ahalegina, bidenabar, atzerriko hizkuntzetan trebatuz tokian bertan.

PRAKTIKAK, ORIENTABIDEA ETA LANBIDERATZEA

Lantegietan egiten diren praktiken bidez ikasleen %60a lanbideratzen da praktikak egin diren lantegian bertan eta urtebeteko epean beste %80a beste enpresetan. Autoenpleguan ere erraztasun handiak



Proiektu Mekanikoen Garapena. Proiektu-Delineantea



Produktu Elektronikoen Garapena

ESKAINTZA AKADEMIKOA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazioa

ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA

- Neurrira egindako arotzeriaren eta altzarien fabrikazio eta instalazioa

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak, domotikoak eta energia-berriztagarriak.
- Kontsumorako ekipo elektronikoak

SARTZEKO BEHAR DA:

DBH, IEEko 2. maila, BBB-2, LH1 edo baliokideak
18 urtetik gorakoak froga bidez

ATE IREKIEN EGUNA
Ekainaren 4an
arratsaldeko 18:30etan

Institutua ezagutzeko manerarik egokiena bertara etorri, ikusi eta galdetzea delako

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio ekoizpena
- Proiektu mekanikoen garapena

ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA

- Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena.

ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA

- Hirigintza proiektuen garapena eta topografia-eraiketa

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Instalazio elektroteknikoak, domotikoak eta energia berriztagarriak
- Telekomunikabide eta informatika sistemak
- Produktu elektronikoen garapena

SARTZEKO BEHAR DA:

Batxilergo LOGSE, LH-II, UBI edo baliokideak.
20 urtetik gorakoak froga bidez

ematen ditu: itzuli beharrik gabeko dirulaguntzekin, enpresa sortzeko aholkua emanez... Azken urteotan, gaur egun lanean ari diren 4 enpresa sortzen lagundu du Bidasoa Institutuak. Ikasketak amaitu dituzten ikasleentzat, Orientabide eta Lanbideratze departamentuak LANGAIrekin elkarlanean, kasik %100eko emaitzak lortu ditu. Era berean, lanbideratzeari begira etengabeko segimendua egiten du Institutuak, ikaslegoari aukera berriak bilatzen lagunduz etengabe.



Instalazio Elektroteknikoak



Telekomunikazio eta Informatika Sistemak



Hirigintza Proiektuen Garapena (Topografia)



Zurgintza eta altzarigintza



Mekanizazioaren Bidezko Produzioa

MALERREKA

II. Ipuin eta marrazki lehiaketa antolatu du Iturengo Ibintza taldeak

Lanak maitzaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dira

Iban ISASI

Ibintza kultur taldeak, joan den urteko emaitza ikusi ondoren, bigarren Ipuin eta marrazki lehiaketa antolatu du eskola umeentzat. Lanak aurkezteko epea maitzaren 23an akituko da. Ipuinak gutxienez orrialde batekoak izan beharko dira eta marrazkietan irudimena eta kolorea baloratuko dira.

Gaiei dagokionez; Haur hezkuntzakoek; nahi duten marrazkia egin ahalko dute. Lehen eta bigarren mailakoek; nahi duten marrazkia. Hirugarren eta laugarren mailakoek; «Zirko bat izanen banu» izenburua duen ipuin bat idatz beharko dute. Bosgarren eta seigarren mailakoek, aldiz, gai librearen izan beharko dute ipuina



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Nafarroako Gobernuak urtero antolatzen du «Ve, mira, participa y cuéntanos» programa. Bertan, Nafarroako 20 bat gaztek behar gehien dagoen munduko xokoetara boluntario joateko aukera ematen da, hala nola Bolivia, Peru, Kamerun, eta Hondurasera. Auren 121 gaztek eman dute izena eta 18 izan dira aukeratuak. Gazte hauek Doneztebeko Belbieretxean eman zuten asteburu bat, beharrezko informazioa jaso eta formazio ikastaroa egiteko.

idazterakoan. Maila gutxietan sari bana emanen

da eta epaimahaia Ibintzako kideek osatuko

dute. Sariak ekainaren 7an banatuko dira.

Gazteluko Ostatua errentan hartzeko lehiaketa

Donamariako Udalak, martxoaren 31n egindako batzarrean enkante publikora atera zuen Gazteluko Ostatua errentan hartzea. Enkantean parte hartzeko 120 euroko fidantza jarri behar da eta proposamenak sobre itxian bidali beharko dira, interesatuaren karnetaren fotokopiarekin batera, Donamariako udal idazkaritzara, maitzaren 27ko 14:00ak baino lehen.

Hauteskundeak

Donamariako Herriarengatik zerrenda hasiera batean legez kanpo utzi bazen ere, errekurritu eta Nafarroan onartutako sei-etarik bat izan zen.

© 948631076 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17 • BERA • © 948 630 763

GAZTANDEGIA
Etxeko
Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

BELARRA
OSTATUA
JATETXEA
Amezia karrika
DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

616 513 497
Pititi
ESKABAZIOAK
C/Amelia,1
31200 DONEZTEBE (NAFARRA)



Zuk egiten duzu Doneztebe



ALFREDO ZUGARRAMURDI ZOZAYA
SERAFINA GRACENEA ESAIN (Indep.)
PABLO GARCARENENA JUANENA
TERESA GASPAR GUTIERREZ (Indep.)
JESUS MARIA JUANENA ARIZTEGUI
JOSE ANTONIO IRAZOQUI IRAZOQUI
MARIA BELEN RETEGUI BELOQUI (Indep.)
JOSE FCO. JAVIER LARRECHEA GOÑI
JOSE LUIS AROCENA LAZCANO

MARIA CARMEN MENTA ECHEVERRIA (Indep.)
JUAN ANTONIO JORAJURIA ECHEPETELECU (Indep.)
JUANA JOSEFA JUANENA TELLECHEA

VOTA
 **EAJ
PNV** Tú mueves.


UDALBILTZA[®]

 EUSKAL HERRIKO UDAL
 ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

UDALBILTZA[®]k,
denon giza-eskubide guztien alde egonik,
Euskal Herriko herrien arteko senidetze
programa berezia abiarazi du: HURBILTZEN

www.udalbiltzainfo.com



BERTIZ Partzuergo Turistikoak

DINAMIZATZAILE-GERENTEA AUKERATZEN DU

BETE BEHARREKOAK:

- ✓ Formakuntza akademikoa: Diplomatura
- ✓ Euskalduna izatea (hitz egiteko eta idazteko gaitasuna izatea)
- ✓ B-1 gidabaimena eta kotxea izatea
- ✓ Nafarroako Enplegu zerbitzuan izena emana izatea.

KONTUTAN IZANEN DA:

- ✓ Formakuntza akademikoa:
- ✓ TEAT
- ✓ Erlazionatutako Formakuntza osagarria:
- ✓ Ingeleraz edo/eta frantsesez maila ertaina izatea (Hizkuntza eskolako maila ertaineko titulua edo hizkuntza froga)
- ✓ Erlazionaturiko lanpostuetan lan esperientzia izatea.

Kurrikulum OSATUA Bertizeko Patzuergoko Turismo bulegoan (Oieregi) aurkeztu behar da maiatzaren 28ko 14:00ak baino lehen. (Ordutegia: 8:30etatik 14:00tara). Informazio gehiago CEDERNA-GARALUReko Lan Orientazio eta Kudeaketarako Zerbitzuko 619 82 92 89 telefonoan (Oskia Baraibar)

ttipi ttapa

350. zenbakiarekin banatua

Herriz herri, bestaz besta

Salbatore
tximindularitza
sariak 50 urte
beteko ditu
aurten Iruritan...



Urdazubiko ahate
jokoak, aldiz,
aspaldian galdu
ziren

Salbatoreak Irurita eta Urdazubin



Maiatzaren 28tik
ekainaren 1era



Composites Baztan *Poliesterrezko lanak* Konpromesurik gabeko presupuestuak



- Inpermeabilizazioak: terrazak, igerilekuak, deposituak...
- Fosa septikozak, kripte banatzaileak.
- Deposituok fabrikatzen ditugu.
- Karruzarien errebestimenduak, furgonetak, erremolkeak, traktorrak.
- Era guztietako molde eta piezaak egiten ditugu, produktiorako.
- Kanalozak, neurritan eginak, altzairua baino egonkorragoak.
- Produktu desberdinak, karretien karkasak, saskiak, tsakurren kaxak...

☎ 948 58 18 24 • faxa: 948 58 18 52
✉ composibaztan@terra.es

Zakubia industrialdea, Iruña - Dantzarinea errepidea
31730 IRURITA

Iruritako egitaraua egunez - egun

Asteazkena 28 Bezpera Eguna

12:00etan Altxaferoa, kalejira herriko trikitilarien esku eta ezkil jotzea. **20:00etan** ezkil jotzea. **21:30etan** Baztanzopak. **24:00etatik 4:00etara** Mozorro dantzaldia DRINDOTS taldearekin (Beldurrezko Gaua).

Ortzeguna 29 Salbatore Eguna

10:00etan kalejira herriko trikitilarien esku. **11:00etan** Meza Nagusia (herriko koroak abesturik). **12:00etan** herriko dantzarien erakustaldia. **13:00etan** herrikoentzat hamaiketakoa. **17:00etan** Joku popularrak. **20:30etatik 22:00etara** dantzaldia IRUÑA BAND taldearekin. **22:00etan** mutildantzak. **24:00etatik 3:30etara** dantzaldia IRUÑA BAND taldearekin.

Ortzileria 30 Haur eta Jubilatuena Eguna



HERRIKO DANTZARI GAZTETXOAK LANEAN, DUELA URTE BATZUK AYERAYAKO ARGAZKIAN.

10:00etan kalejira EGHOA txaranga eta trikitilarien esku. **11etatik 13:00ak arte** haur jolasak. **14:00etan** oiolo jatea haurrendako, jubilatueendako bazkaria Olari jatetxean eta

Baigorri gazteendako. **15:30etan** haur jolasak. **19:00etan** kalejira txarangarekin eta txokolate jatea. **20:30etatik 22:00etara** dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.

22:00etan mutildantzak. **24:30etatik 3:30etara** dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.

Larunbata 31 12etan EGHOA txaran-

garekin kalejira. **14:00etan** zikiro jatea txaranga eta bertsolariak lagundurik (Amets Arzallus eta Sustrai Colina). **19:00etan** nesken Aranabiako VIII. Paleta txapelketaren fi-

SUMINISTROS YANCI

- Iturgintza eta kalefakzio materialaren salmenta
- Iturgintza instalazioak
- Gas eta Gasoil berogailuak
- Erregailuen moldaketa eta mantenimendua
- Moble osagarriak eta bainurako manparak

Zaldubia Poligonoa - IRURITA - Tel: 948 580 109 / 948 452 464



BAZTAN MOTOR, S.L.

*Mekanika, elektrizitatea, txapa eta pintura
Auto berri eta erabilien salmenta*

Zaldubia • IRURITA
Tel. eta Faxa: 948 452 119

ARKUPE GOZOTEGIA

Tarta bereziak eta Etxeko izozkiak
IRURITA © 948 452021 • ELIZONDO © 948452393

nala. **20:30etatik 22:00etara** dantzaldia IRUÑA BAND taldearekin. **22:00etan** Mutildantzak. **1:00etatik 5:00etara** gaupasa IRUÑABAND taldearekin.

Igandea 1

10:00etan L. Txirringulari Salbatore Saria. **10:30etan** Meza Nagusia. **11:45etan** kalejira txarangaren esku. **18:00etan** Nafarroako soka-tira txapelketako jardunaldia (neskak eta mutikoak). **19:00etatik 21:00etara** dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin. **21:00etatik 22:15etara** GLADYS Y LOS CHARROS mariatxiak. **22:15etan**

Mutildantzak. **00:30etatik 3:30etara** dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin eta besten akabaila.

GOITIAN MOZORROAK
IÑAUTERIETAN, EZKONTZA
BAT IRUDIKATZEN.

SENARGAIA: JUAN IGNACIO ESCUDERO. ANDREGAIA: TXUMA PRIM. BELOAREKIN: JON ITURRALDE ETA JOSE LUIS URRUTIA.

DANTZARIAK: JOSE MARTIN ZELAIETA...

BEHEITIAN, DANTZARI TAILAK ZAGI DANTZA DANTZATZEN ETA AIZKORA APOSTUA: MINDEGIA ETA LARRETXEA AIZKORA SAIOAN.



A ZE
DOT
ETA
PRE
ZUE
NEA

JOAKIN harategia

*ongi pasa
bestak!*

Agerreberea
IRURITA
948 581 077



© 948 45 22 50 • IRURITA




Maderas GOMEN

- Era guzietako atek, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

OLARI

Jatetxea



Tfnoa: 948 45 22 54

IRURITA

* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

IRIARTEA BENTA*Chez Peyo*

Ostatua - Autozerbitzua - Larrua...

Tfnoa: 948 599049 - DANTXARINEA • URDAZUBI

ANASTASIA OSTATUA**Janari Denda**

Tfnoa: 948 59 90 27 - URDAZUBI

ETXELEKUA

ETXEKO BEHI eta ARDI GASNA

Zugarramurdiko karretera,
© 948 599169 URDAZUBI**Venta JUAN FELIX**Ostatua
Oroigarriak
Janaridenda

Tel. 948 599 052 • DANTXARINEA

M^a Cruz Plaza*Harategia*

Tfnoa: 948 599008 - URDAZUBI

SANTIAGO VILLARES

GARRAIOAK

- Luzerna
 - Agotza eta lastoa
 - Luzerna - pentsu granulatuen
- SALMENTA eta EXPORTAZIOA
- © 948 59 91 34
URDAZUBI

ZUBIONDOAOstatu
Autozerbitzua
Oroigarriak

Tel: (0034) 948 599 041 / DANTXARINEA

**ARMUA
Jatetxea**Zugarramurdiko karreteran, 3. km
© 948 59 91 31 - URDAZUBI**VRDAZYBIKO
MYS
TXAPELKETA
AZKARRA**

Maiatzaren 24a, larunbata

**1. saria:**

Grill Mikrouhin labe bana

2. saria:

Eskumuturreko erloju bana

3. saria:

Urdaiazpiko bana

4. saria:

Bildots bana

**Izen-ematea:**

15 euro bikote bakoitzeko

Lekua: Bar Mon (Auzan-borda)

Tel.: 948 599039

Ordua: 22:00etan hasteko.

Puntualitatea.

Bertze urteetan bezala,
Urdazubiko besten hasmenta.Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu.Disco musika
Goizaldera arte**ARRETXE A BENTA**

Tabakodenda • Janaridenda

Jantzidenda

Zapatadenda

Tel. eta Fax: 948 599015

DANTXARINEA ESTAZIO ZERBITZUA

Tel.00 34 948 599250

DANTXARINEA

Urdazubiko egitaraua egu- nez - egun

Asteazkena

Maiatzak 28

20:00etan suziriak bestak hasteko eta ezkil jotzea. **22:00etan** afaria Indianobaitan MODESTOK alaiturik.

Ortzeguna

Maiatzak 29

Salbatore Eguna

11:00etan Meza Nagusia. **12:00etan** frontoian aperitifa, Zazpiak Bat taldeko dantzariak eta gaiteroak alaiturik. **15:00etan** haurrenako jolasak Jokulandiarekin. **16:00etan** pilota partida Urdazubiko gazteen artean. **21:00etan** paellada herriko frontoian LARRAKAITZ txarangaekin.



URDAZUBIKO GAZTEAK BESTA EGITEN, ASPALDIKO ARGAZKI BATEAN. GAUR EGUNEKOAK ERE BIDE BERETIK SEGITUKO DUTE, NAHIZ ETA GAUEKO BESTA EGUNEKOA BAINO GEHIAGO MAITE.

Ortzilare
Maiatzak 30

14:00etan Ugarana Andre Elkartek anto-

latutako bazkaria herriko frontoian, JOXE

ANGELeK animaturik. **16:00etan** haurrenako

ko jolasak Jokulandiarekin. Ordu berean dia-

Faustino ETXABE Tailerrak

Autoen konponketa

Besta on batzuk pasa!

© 948 599038 • ZUGARRAMURDI

Judianoa Beitza

Jatetxea - Hostala

Ongi pasa herriko bestak

Tfnoa: 948 59 90 21 - URDAZUBI

Angel BENGOTXEA

eraikuntzak

Era guzietako argin lanak

☎ 948 599484 • URDAZUBI

BYRKAITZEA

ostatu - erretegia

Ongi pasa herriko bestak!

Zugarramurdiko bidea, 3 km.

© 948 599280 • URDAZUBI



nak Dantxarineako bentetan barna akordeoiarekin alaiturik. **Arratsean** musikaldia ALAITZ eta MAIDERekin.

Larunbata

Maiatzak 31

12:00etan Zikiro jatea LARRAKAITZ txarangarekin animatua. **Gauetz** kontzertua: Eremu, Lau Itzal eta Iraxorekin.

Igandea

Ekainak 1

11:00etan Euskal Herriko lur gaineko sokatira txapelketaren finala: lau lauren kontra, 320 kiloz beheitiko kategorian: Areso A eta B, Nuarbe A eta B (Gipuzkoa), Goierri A eta B (Bizkaia), Mutriku (Gipuzkoa), Getxo (Bizkaia) eta Gaztedi (Bizkaia). **17:00etan** Urdazubiko IV. Lasterketa, Gauazkolarien Bideetan. 7,5 kilometroko ibilbidea, hasiera eta akabaila (400 metro inguru) zakuarekin. **20:00etan** boletoen zozketa. **22:00etan** «Pobre de Mi».



DUELA URTE BATZUETAKO EHIZLARI TALDEA ETA ORAINDIK ASPALDIAGOKO IÑAUTEETAKO TALDEA. ARIKETA POLITA IZANEN DA HORIETAKO BATZUK BEDEREN EZAGUTZEA.

Kategoria bereziko hostala

IRIGOIENEA

Tel.: 948 59 92 67 • Faxa: 948 59 92 43
URDAZUBI

Josune ileapaindegia

Gizon eta emakumeendako
ILEAPAINDEGIA

© 948 599028 • URDAZUBI

Zure publizitatea

ttipi-ttapan

948 63 11 88

Benta
Ostatua • Jatetxea

mikelenborda

Tel: 0034 948599045
31712 DANTXARINEA

↳ Jostalekua haurrentzat
↳ Terraza estalia

Lezeetatik 50 m.tara

IKABURUA
Ostatu - Jatetxe - Erredegia

© 948 599 222
URDAZUBI

Rosa Mentaberri
Ileapaindegia

© 948 59 91 29 - DANTXARINEA • URDAZUBI

**Venta
Panta**

Tabakodenda
Ostatua
Janaridenda

© 0034 948 599012
DANTXARINEA

JOSENEA
Zerbitzu
Estazioa

*Besta
ederrak
para!*

© 948 599030
URDAZUBI

gmb
Grupo médico dental del Baztan

hortz klinika berria
Elizondon! (Ikastola parean)

Santiago 47, 1. C • 948 581 900

Zure arazoaren soluzioa daukagu

**Profesional
kualifikatuak**

**Goi mailako
teknikak**

**Azken belaunaldiko
materiala**



**Harrera
goxoa**

**Lehen kontsulta
dohain**

**Finantziario
aukera zabalak**

Larrode Anne Marie - Doktorea

Bordeleko Medikuntza Fakultatea
Bordeleko Hortz-haginen Eskola
Ortodontziari Goi Mailako Ikasketak Zuztegia

Caplanne Jean Pierre - Doktorea

Bordeleko Medikuntza Fakultatea
Bordeleko Hortz-haginen Eskola

Larrieu Thierry - Doktorea

Bordeleko Medikuntza Fakultatea
Bordeleko Hortz-haginen Eskola



Salbatore bestetan, herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu

Besta Zoriontsuak!

NAFARROAKO  **KUTXA**



- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak.
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

BAZTAN ALTZARIAK
zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 948 45 23 74 • IRURITA



LANDIBAR AUZOAN URDAZUBI-NAFARROA

Otordu handiak • Famili jilerak



Ugarana jatetxean

Kinto bestak • Koadrila afariak
despeitidak



Kupela sagardotegian

Trago eta pintxo goxoak



Mikela ostatuan

Besta, saltsa eta dantza...




La Nuba diskotekan



**Etorri, probatu
eta gozatu**

**Erreserbak:
(0034) 948 599410**



Nafarroatik mundura
Aldatzeko garaia

Vota



*Zure
botoa*

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

San Isidro Eguna ospatu zuten bi herrietako nekazariak

Ekainaren 21ean eginen den Akelarre gaupasarako taldeak finkatu dituzte antolatzaileak

Margari eta Koro

Maiatzaren 15ean San Isidro nekazarien eguna ospatzen da eta aitzakia pullita izan zuten gure bi herrietakoa nekazariak elkartzeko: urtero bezala, bi herrien artean dagoen San Esteban kaperan meza entzun zuten eta ondotik bi herrietako mugan dagoen "Armua" jatetxean 40 lagun hurbil bazkalitzen juntatu ziren. Gure herri hauetan nekazaritza tiikitzen ari dela

kontutan hartuz, pozgarria da halako usaiak gordetzen segitzea.

Akelarre gaupasa finkatua

Aurtengo Akelarre gaupasa finkatuta dago: Ekainaren 21ean eginen da eta taldeak hauek aituko dira: Kontzerturako : "Ameba", "More" eta "Sorkun" eta dantzaldirako: "Nekin". Antzerkian "Deabru beltzak" taldeak lagundu-

ko du eta Zubietako joaldunak ere arituko dira.

Udal hauteskundeak

Aitzineko alean, udal hauteskunderako zerrendak argitara eman genituen, baina Zugarramurdin hanka sartu genuen. Beraz, zerrendak honela geldituko dira osatuak. Lazaro Dainziart alkategai izanen duen Akelarre taldean, Estefania Bergarak, Francisco Javier Arbu-

ZUGARRAMURDI

AKELARRE



Lazaro Dainziart Iribarren

- 2. Estefania Bergara Mendiburu.
- 3. Fco Javier Arburua Apeztegia.
- 4. Jesus Mari Agerre Indaburu.
- 5. Gonzalo Garmendia Bedialauneta.

Zug. ELKARTEA



Evaristo Mentaberri Mihura

- 2. Jose Antonio Marturet Arkauz.
- 3. Juan Maria Cordoba Elizegi.
- 4. Faustino Jesus Etxabe Ladera.
- 5. Izaskun Agirre Ganboa.

ruak, Jesus Mari Agirrek eta Gonzalo Garmendiak osatuko dute zerrenda. Evaristo Mentaberri alkategai duen zerrendan, berriz, Jose

Antonio Marturet, Juan Mari Cordoba, Faustino Jesus Etxabe eta Izaskun Agirre izanen dira zerrenda osatuko dutenak. Bakoitzari berea.

euskara zure laneko erreminta

Decidete a aprender **euskara**

torlojua tornillo

azkoina tuerca

bihurkina destornillador

giltza zabalgarria llave inglesa

• Burtziritako Euskara Mankomunitatea
• Lan Mundako Batzordea

GOIZUETA

Maiatzaren 26ra arte ikusgai Arau Subsidiarioen errebisioaren planoak

Eskolarteko bertso txapelketatik sari ugari ekarri dituzte

Esteban AROTZENA

Idoia Legarretak eta bere taldeak hartu zuen bere gain Arau Subsidiarioak berritzeko ardura, eta hainbat hila-beteren ondoren, maiatzaren 9an aurkeztu zieten herritarrei egindako lanaren aurrerapena. Alegazioak edo ekarpenak luzatzeko epea astelehenean bukatu zen, baina hilaren 26a arte ikusgai egonen dira planoak Herriko Etxean.

Nafarroako Eskolarteko bertso txapelketa

Maiatzaren 5ean, Leitzan, zonaldeko ikas-tetxeetako bertsolariak bildu ziren bertso-paper sari banaketarako eta bapateko jarduerarako. Goizuetatik bapateko la-



ARGAZKIA: ESTEBAN

Eskolarteko bertso txapelketan sarituak suertatu ziren Goizuetako neska-mutikoak.

nean bost ikaslek hartu zuten parte, eta horietako batek, seigarren mailako Maialen Uitzik, Elizondon maiatzaren 24ean eginen den Nafarroako kanporaketan parte hartzeko txartela lortu zuen, lau oinak emandako lanean bera

izan baitzen onena. bertso-paperetan ere, sari ugari jaso zuten goizuetarrek, hala nola, Xumar Bakero eta Iñigo Agesta irabazle suertatu ziren beraien mailetan, eta Julen Arozena, Aimar Zugarramurdi, Martin eta Patxi Etxe-

berria, Bianditz, Ekaitz eta Jon Narbarte eta Aritz Zubirik ere sariak eskuratu zituzten.

Itxialdia

Estatuaren etengabeko erasoei erantzun nahiean hamar lagunek itxialdia egin zuten Herriko Etxean maiatzaren 9etik 10era. 50 lagun bildu ziren larunbat eguerdian kontzentrazio deialdiarekin bat eginez.

Unibertsitatea

Udako Euskal Unibertsitatean izena goizuetar edo aranoarren batek emanen balu, matrikularen zati bat ordaintzeko dirulaguntza jaso ahal izanen du Udal Euskara Zerbitzutik. Dabid teknikariarekin jarri beharko da harremanetan horretarako.

ARESO



Santa Kruzeko erromesaldi jendetsua

Juana Mari SAIZAR

Maiatzaren 3an bederatzi gaztek sendotza sakramentua hartu zuten Javier Azpiroz bikarioaren esku-tik.

Maiatzaren 4an, Santa Kruzeko erromesaldia ospatu zen. Aspaldiko urteetan ikusi den jende kopuru handiena bildu zen, sendotzako gazteak eta guraso batzuek parte hartu baitzuten. Bidean Gurutze Bidea erreztatu zen eta maiatzeko loreak eskaini zizkieten Amabirjinari.

Unibertsitatea

Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) matrikula egin nahi dutenak Euskara Zerbitzutik egiten bada dirulaguntza izanen dute. Diru partida hau, matrikula egiten dutenen artean banatuko da.

Haur Olinpiadak

Haur Olinpiadak ospatu ziren maiatzaren 10ean, emaitza onekin eta helburuak lortuz: lau herrietako umeek eta gurasoek elkar ezagutzea. Bisita bueltatzekotan gelditu ziren.



**ESKAILEREN
FABRIKAZIOA
eta KOLOKAZIOA**

Material motak:

- Haritza
- Sapelly
- Iroko
- Elondo
- Pinua



Ventas Auzoa 27 (Landetxa) • 20305 IRUN

Tel: 943 628171 • Faxa: 943 632660 • e-mail: hoppe@euskalnet.net

LEITZA

XXV. Kultur Astea egingen da maiatzaren 31tik ekainaren 8ra

Udalak 2,58 milioi euroko aurrekontua izanen du aurten

Mikel ILLARREGI

Kultur Aste bakoitzak bere berezitasunak dituen arren, aurtengoa XXV.a dugunez, horrek bereziagoa bihurtzen du ekimen hau. Bolondres talde batek urte osoan lan egiten du, herritarrok aukera ezberdinez goza dezagun. Maiazaren 31n Aralar musika eskolak emanaldia eskainiko du zineman 18:00etan. Ekainaren 1ean, XXIII. Eskulan-gintza erakusketa izanen da plazan eta arratsaldean Trikidantz taldearen emanaldia. Ekainaren 2an, «Munduari bira bizikletaz» diapositibak emanen ditu Eneko Etxebarrietak zinemaz 20:00etan. Ekainaren 3an, leku eta ordu berean Ainara Rodaren errezitala. Ekainaren 4an Jakoba Errekondoren hitzaldia eta 5ean, duela 30 urteko iñauteriei buruzko bideo emanaldia eskainiko du Agustin Aranburuk. Hortik aurrerakoak hurrengo alean eta agendan.



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

Hauteskunde giroa?

Hauteskundeak igande honetan egingen dira. **Batzuek normaltasun giroa azaldu nahi izan badute ere, hamaika gertakari izan da aipatzeko. Horien artean ilegalizazioarena izan da gehien zentratu duena sektore ezberdinen mezua. Egunkariaren ilegalizazioa, alderdi politikoena, herriko plataformena, Udalbiltzarena... Hauetako askori erantzuna eman zaio herrian. Udaletxean batzar berezia egin zen eta UPNren abstentzioaz, Udalbiltzaren aldeko idatzia onartu zen (EA ez zen azaldu). Ondoren kontzentrazioa egin zen plazan.**

Aurrekontuak onartu dira

EH eta EAren aldeko botuekin eta UPNren abstentzioarekin aurtengo aurrekontuak onartu dira. Guzira 2,58 milioi euro. Onartutakoren artean, Babes Ofi-

zialeko etxeak eraikitzeke terenoaren erosketarako 120.202 euro, eskolaren hobekuntzarako 42.040 euro, Ongizate Zerbitzurako 79.359 euro, mendiko plangintzarako 108.253 euro, Obrak eta Hirigin-

tza arloan 270.554 euro, Kultura eta Festak 276.323 euro... Bereztasun moduan aipatu Aieneko labaderoaren moldaketarako, labadero bera erakustoki bihurtuz, 53.151 euro inbertituko direla.

FLASH



Plazaola

Ibilbide Berdeen Eguna zela eta, aprobetxatuz, hemen ere Plazaolaren inaugurazioa ospatu zen. Eguraldi bikaina eta jende gehiegi ez bazen ere, mordoxka bat ibili zen trenbidean eta ondoren horretarako presatua zegoen atsedean gunean bildu. Tren txiki bat ibili zen bueltaka, taloak ez ziren falta eta ekitaldia amaitzeko Altsasuko dantzariak aritu ziren.

Unibertsitatea

Euskara Zerbitzuak, udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroren bat egiten dutenentzat dirulaguntza badu. Beraz, jaso nahi duenak zerbitzuko teknikariekin hitz egin dezala betebeharrekoak betetzeko.

Basozaina

Azkenik, basozain berria aukeratu du udalak, betebeharreko frogak gainditu ondoren. Mikel Gulina Tirapu da basozain berria.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9etatik 13etara eta 15etatik 19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328+133346. Faxa: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

gaztelu scl iturgintza

kalefakzioa • saneamendua • gasa

© 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA



Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrentako bizikletak
Arropa eta osagarriak

Kantonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

Salmenta eta konponketa

KULTURA

Altsasu, Leitza, Lekaroz eta Doneztebeko ikastetxeetako ikasleen musika kontzertuak




Ekainaren 5, 6 eta 9an Leitza, Lekaroz eta Donezteben izanen dira

ttipi-ttapa

Azken urtetako ohi-turari eutsiz, aurtengo Altsasu, Leitza, Lekaroz eta Doneztebeko ikastetxeetako ikasleek musika emanaldiak eskainiko dituzte 2002-2003 ikasturteari akabaila emateko. Kontzertu hauetan, aipatutako lau herrietatik etorritako 550 ikasle bilduko dira ikasturtean musika arloan landu eta ikasitako jardurean eskaintzeko helburuarekin.

Lehen emanaldia maiatzaren 29an, osteguna, Altsasuko kiroldegian egingen da 17:30etan. Leitzako frontoian ekainaren 5ean, osteguna, 17:30etatik aurrera bilduko dira. Biharamonean, ekainaren 6an, Lekarozko Institutuko kiroldegian elkartuko dira 17:30etan eta azken kontzertua ekainaren 9an, astelehenarekin, eskainiko dute Doneztebeko pilotalekuan, 17:30etan.

Kantutegiari dagokionez, denetik entzuteko aukera izanen da: inguruko dantzak, musika herrikoia, rock-a... Musika honi batasuna ematen, mugimenduan oinarritutako koreografiak eta maitasunarekin loturiko testu eta poemak izanen dituztela jakinarazi dute.



E un r h
t r n r r n

zk n urt t n C ur l n h z kun h n n l un u
ut n rts n uz n k nf ntz sk rtu n h u u.

Et k nf ntz h rr r ntzuc ns tz k l n n r r r .
un tk un r ur h l uru l tuz un r h k
t .

www.nafarrak.com

E un r h
t r n r r n

NAFARRAK
RURLIKUTXA

BAZTAN

Baztango hamargarren Mendi Ibilaldia igande honetan egingen da

Anizen hasi eta akituko da, 39 kilometroko ibilbidea osatuz

ttipi-ttapa

Baztango Mendigoizaleak elkarteak hamargarren aldiz antolatu duen Baztango Mendi Ibilaldia igande honetan, maiatzak 25, egingen da. 300 metroko altueran dagoen Anizen hasi eta bertan akituko da ibilaldia. Tartean Berroeta (360 m), Zolborro (440 m), Erreka (370 m), Arluz (860 m), Belate (920 m), errepidea (820 m), Odolaga (890 m), Txaruta (1.080 m), Etxola (955 m), Garmendi (1.070 m), Baztanibar (700 m), Iriso (460 m), Enaburua (255 m), Erreka (180 m), Zozaiagaina (390 m), Zozai (310 m) eta Errota (175 m) igaroko dituzte, 39 kilometroko ibilbidea osatuz. Argibideak eta izen-emateak Baztango Kirol Zerbitzuan egingen ahal dira, 948 581279 telefonoan (Elizabeth). Ibilaldian parte hartzeko 5 euro ordaindu behar dira eta izen ematea 7:00etatik 7:30etara izanen da.



ARGAZKIA: D.NAVARRA

Lekarozko gazteen aterpean ari diren langileetako batzuk ageri dira argazkian. Ezkerretik lehendabiziko, Maria Eugenia Campos lesakarra.

GAZTEDIA

Lekarozko Kolegioko gazteen aterpea Aspace erakundearen esku izanen da

Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak eta Aspacek maiatzaren 2an sinatutako kontratuaren arabera, azken erakunde honek kudeatuko du Lekarozko Kolegioan dagoen gaz-

teen aterpea. Aspace izan da, hain zuzen, lehiaketa irabazi duen enpresa. Kontratuaren sinadura ekitaldian, Calixto Ayesa, Nafarroako Gobernuako Ongizate, Kirol eta Gaztedia Departamendu-

ko kontseilaria, Javier Trigo Kirol eta Gaztediaren Institutuko zuzendaria eta Maria Fernanda Esparza Aspaceko zuzendari orokorra izan ziren. Urtebeterako kontratua sinatu da, baina urtero berritzeko aukera izanen da, bortz urtez gehienez. Bertan 16 lagunendako lana izanen da.

FLASH

III. Ordoki Likoreak txirrindularitza saria

Maiatzaren 11n egin zen Arizkun III. Ordoki Likoreak txirrindularitza saria. Bertan, Caja Rural taldeko Gorka Verdugo gailendu zen, Graficas Onako Iban Lataza eta Olarrako Asier Atxaren aitzinetik. Parte hartu zuten 68 txirrindularietatik 22 berterik ez ziren helmugara ailegatu, 123 kilometro bete ondok.

Bizikletan Egunkariaren alde

Baztan Ikastolak antolatua, Egunkariaren aldeko bizikleta martxa egin zen maiatzaren 10ean. Haurrak Elizondotik Iruritari gan ziren piezetan barna. Helduak ere Iruritari gan ziren, baina Antzanborda eta Gartzain barna. Gerorok jokuak egin zituzten.



Gierresena

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia



ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO

☎ 948 581807 • 948 581853



LARRALDEA
SAGARDOTEGIA


Bertan egindako sagardoa
eta sagardotegiko menua

Telleria Auzoa • LEKAROZ
☎ 948 452121

BAZTAN

Euskararen aldeko hitzarmenak sinatu dituzte Kontseiluak, Udalak eta Doikek

Helburu nagusia baztandarrak euskarara hurbiltzea da



ARGAZKIA: GARA

ttipi-ttapa

Balleko Udalak, Doike euskara elkarteak eta Kontseiluak Bai Euskarari akordioa Baztanen garatzeko lankidetzaz hitzarmenak sinatu zituzten apirilaren 24an. Helburu nagusia baztandarrak euskarara hurbiltzea da. Horretarako, Baztango gizarte eragileei proiektu honetan parte hartzera deituko zaie eta plan estrategikoa diseinatu da. Ondorioz, gizarte eragileek egiten dituzten urratsen arabera Bai Euskarari Ziurtagiria jasoko dute.

Patxi Oiartzabal Baztango alkateak «*positibotzat*» jo zuen sinatutako akordioa, «*euskararen normalizazioan urrats garrantzitsuak egiteko aukerak ematen duelako*». Cristina

Arregi zinegotziak gehitu zuenez, proiektu honetarako Udalaren eta euskalgintzako erakundearen arteko elkarlana bideratuko du.

Doike euskara elkartearen izenean Alazne Sansiñenak adierazi zuenez, akordio honen bidez Baztanen «*zabaldu den lan ildo*

Xabier Mendiguren Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko idazkari nagusia, Patxi Oiartzabal Baztango alkatea eta Alazne Sansiñena Doike euskarari elkarteak kidea, Bai Euskarari akordioa Baztanen garatzeko lankidetzaz hitzarmenak sinatzerako unean.

arras egokia da ballean euskararen normalizazioan sakondu ahal izateko». Gainera, Doikek Kontseiluari eta Baztango Udalari eskerrak eman nahi izan zizkien,

egitasmo hau abian jarzteagatik. Xabier Mendigurenaren ustez ere, instituzioek euskal hizkuntzaren normalizazioaren alde egiten duten lana eta euskalgintzak egi-

ten duena uztartu egin behar dira, eta uztartek horretatik ateratzen diren indar berriek «*bul-tada ederra*» emanen diote hizkuntz normalizazio prozesuari.

MENDIA

Mendietako pistak eta oihanak hobetzeko lanak eman ditu Balleko Udalak

Balleko Udalak, pistak hobetzen eta oihan berritzen urte honetan egin beharreko mendi lanak eman ditu. Honela, pista guztiak Sasoi Eskabazioak enpresak egiten ditu. Larraldeko pista hobetzeko 68.949,18 euroko eskaintza egin du, Aritzakungo pista ormigoiztatzeko 52.646,83

eurokoa, Bazelaietakoa ormigoiztatzeko 13.819,79 eurokoa eta Iñartzetakoa ormigoiztatzeko 13.049,22 eurokoa.

Oihanberritze lanak banatua goak daude. Juan Mari Galarregik 4.102 eurotan egiten du Atxuelako larre-garbitzea eta kimaketa eta 8.241 eurotan Bela-

teko larre-garbitzea; Pako Altzurik 5.094,97 eurotan egiten du Ansastegiko kimatze lanak; Sebastian Lasagak 5.514,98 eurotan egiten du Zokoako oihana berritu ahal izateko itxidura edo zerrakura; R.Etxartek Zazpiturri eta Zaldizuriko zerrakurak egiten ditu, bakoitza 13.054 eurotan; Kables inguruko zerrakura, azkenik, Altaz enpresak egiten du, 7.476 euroren truke.

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

Zure publizitatea
ttipi-ttapan
948 63 11 88

asnáp me
• GIZARTE ETA LAN ARLOA
• KONTABLE-FISKALA
• JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Garrantziak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igelnerok...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZTIAK
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garrantziak-aseguramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta aiturpenak

DONOSTIA: Baza Semerak, 4. Solairu
 Telefono: 948 431822 Telefax: 948 431818
 web: www.asnappyme.com

ELIZONDO: Sarratea, 51. Solairu
 Telefono: 948 580 504
 e-mail: elizondo@asnappyme.com

BILBAO: Zuzenbide, 3. Solairu
 Telefono: 948 562238 Telefax: 948 562194
 garrantzi@asnappyme.com

ONASKA
ERRETEGIA
Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan
Bagordiko bidean • ELBETE
☎ 948 45 20 88

SENPERE

75.000 euskaltzaleen artean Herri Urratseko sortzaileak omendu zituzten 20garren bestan

Irabaziekin Ziburu eta Donaixtiko kolegioak lagunduko dituzte

Franck DOLOSOR

Herri Urratseko hogeigarren ekitaldia biziki hunkigarria izan zen sortzaileak omendu eta 75 000 lagun bildu baitziren aintziran ikastolak laguntzeko. Hogoigarren besta izaki, oroitari bat altxatu zuen herriko etxeak eta sortzaileak ere eskertu zituzten. Hauen artean herritar batzuk baziren, Bibix eta Jean Louis Bessonart, Pierre Iturria eta Juan Manuel Galarraga lehen antolatzaileetarik baitziren.

Maitzaren bigarren igandean, musika, dantza, joaldun eta artisau egileak, ez zen deus falta, usaiako gonbidatu

guziak aintziraren inguruan baitziren. Euskal Herriko artistek bihotz zabalekoak direla erakutsi zuten aurten ere kontzertu andana eskaini zutelako urriarik. Kantaldi herrikoietan ere milaka jende bildu zen "Guk euskaraz" edo "Eperra" ederki kantatzeko. Beren panderoekin, Galiziako Faltriquiera taldeko neskatxek ere arrakasta handia lortu zuten.

Milaka euskaltzale ondoan, ehunka hautesi egon ziren igandean Herri Urratsen. Duela 20 urte, gehienak kontra ziren baina zubi azpitik ur ainitz pasa da eta gauriak ere aldatu dira. Be-



ren presentziak gauza bat argiki frogatu zuen, Seaska bide zuzenean dela eta ikastoleri esker euskara bizi dela.

Bisitarieri ongi etorria ematean, gauza bera erran zuen Christine Bessonart andere auzapezak. Gainerat, iazko hitza bete zuen eta eskuaraz mintzatu zen. Iaz frantsesez mintzatu zen

bakarrik bainan eskuar ongi ikasiko zuela hitz eman zuen. Hitz eman eta bete ere.

Bessonart-ek ongi gogoratzen du Herri Urratseko lehen ekitaldia hantxe egon baitzen bere alaba sortu berriarekin. Orain, kanpoko jende ainitz heldu da bizitzera Senpererat bainan auzapezaren ustez

baitezpadakoa da euskal nortasuna mantentzea. «*Senpere euskalduna da lehenik eta hori errespetatu behar da. Honek ez du hausturarik eragin behar baina euskarari zor zaion tokia eman behar zaio*». Auzapezaren hitzei entzuleek esku zarta zaparrada batekin erantzun zioten.

SAROB

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA



MARTIKO

Abatekietan
adituak eta arituak

© 948 625016 • Fax 948 625036

Alkaiaga Industrialdea • BERA



Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak
Angelak
Orma antzinak
Leioak
Ateak
Arkuak
Pilareak

Tximiniak
Erlaizak
Moldurak
Zokaloak
Hilarriak
Marrazkiak

'Abujandakoa' Mazoia
Zahar antzekoa Txapeanua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

bentamiguel
dentsa, jantzia eta osotasun

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Taldea
Lokala
Jantzi-entzola
Unibertsitate

Ibardingo Lepoa • © 948 631209

AZKAIN

Batera Plataformak erreferrenduma eztabaidan ezarriko du Herriko Etxean

Altxalili kultur elkarteak biltzar nagusia izanen du maitzaren 31n

Ihintza, Angela eta Eneko

Ipar Euskal Herri osoan bezala, Batera Plataformako kideek eztabaida gune bat antolatzen dute Bil Tokin, Maiatzaren 27an arratseko 6etan. Herriko Auzapezak eta Ibarburu axuentak gomita luzatzen die herritarrei Batera Plataformaren erreferrendumazioen eztabaidatzeko: Euskal Departamendua, Euskararen Ko-ofizialtasuna, Laborantza Ganbara, Berezko unibertsitatea.

Eztabaida eginen da ere baterako kideek bozkatu duten mozioaren inguruan, zointan eskatzen zaion gobernuari erreferrenduma baten antolatzea Ipar Euskal herrian, Korzikan egin nahi den gisara.

Sarkozy barne ministroak bisita bat egin behar baitu ekaina has-

tapenean, Batera plataformako delegazio batek mozioa aurkeztu nahiko dio. Eztabaida gunea Ipar Euskal herriko 155 herriko Etxetan egiteko asmoa da.

Altxaliliren Biltzar nagusia

Altxalili kultur elkarteak bere biltzar nagusia antolatzen du maiatzaren 31n larunbatarekin Jauregian aratseko 7etan.

Ondotik, Xoko Ona ostatuan eginen da Zintzur bustizea eta afari hotza.

Ohorea salbatu zuten errubilariek 4. zerrendako finalean

Errubilariek galtzaileen finala jokatu zuten Maiatzaren 11n Salbarreren kontra. 36-19



Eskualdeko Klika eta Banda lehiaketa antolatu zuen larrundarrak taldeak

Iragan igandean, maiatzaren 18an, hamabortz musika talde bildu ziren Azkainen eskualdeko lehiaketaren jokatzeko. Urruña, Baiona, Villeneuve sur Lot, Urt, Came, Begioz, Akize, Hazparne, Urkoi, Heleta, Larresoro, Makea, Salbatarre, Isturitze eta Azkainen artean jokatu zen trofeoa. Eguna 8:00etan hasi zen herriko plazan, talde bakotzak bere osotasunean epaitua zelarik. Ondotik meza nagusian bildu ziren talde guztiak. Herriko ostatueta bazkaldu zuten ere.

errex irabazi zuten. 4. zerrendako xapela ekarri zuten gibelat bainan ohore guttirik, ondoko urterako benefiziorik ez baitute irabazi.

Saski baloian departamenduko finala jokatu zuten

Maiatzaren 18an jokatu zen departamenduko gizonezkoen saskibalo finala Azkain eta

Billeresen artean. Hurrengo alean emanen dugu emaitzaren berri.

Mutxikozaleentzat dantza ikastaldia

Ikasleak dantza taldeak Mutxikozale guztiak gomitatzen ditu ikastaldi baten egiterat Bil Tokin maiatzaren 23an arratseko 8etan.

Patxi Perez erakuslearekin ikasten ahalko

da "Azkaindarrak" mutxikoa ematen burutik buru urratsak izendatu gabe.

Presoen aldeko elkarretaratzea maiatzaren 31n

Hilabete guziz bezala Euskal preso politiko hurbiltzearen aldeko elkarretaratzea eginen da maiatzaren 31n larunbatarekin herriko plazan eguerditan.

udana
salazones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO

SCC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

ZOANSA

FIAT AUDI VOLKSWAGEN

SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

SARA

San Josepe eskolako haurrak Lapurdiko kantu txapelketan

Taldetan lehen saria eskuratu zuten eta Battitta Iribarren finalean izanen da bakarka ere

Joana eta Saski

Apirilaren 13an Hiriburun izan da Lapurdiko Kantu Txapelketaren erdi-finala. Sarako «San Josepe» eskolako hirugarren zikloko haurrek parte hartu dute. Lehenik, eskolan, kantu bat asmatu dute Manex Bergaren laguntzarekin. Gero hiru musikarik (Xabi, Iban, Manu) asmatu dute aire bat eta etorri dira eskolarat ikasleekin entrenatzeko. Ororrat 23 kantu aurkeztu izan dira eta taldetan lehen saria irabazi dute saratarrek: «Biziki kontent ginen! Erran behar da gure eskolan den la gun bat, Battitta Iribarren, joaiten dela finalerat, lehena ateratu baita. Lagundu gaitugun gende guziak eskertzen ditugu eta gorezmenak parte hartzaile guziei!».

Korrika ttiki

Joan den apirilaren

8an Korrika Ttiki iragan da, Sarako Ikastolak antolaturik errugbi zelaian. Haien bizkarrekoak eta lekukoak bakarrik egini ama ikastolako 15 bat haur lasterka aritu dira. haien moduan, besta haundi hortan parte hartu dute. Biba zuek eta segi hola!

Pala txapelketako finalak

Apirilaren 26an, pala txapelketako finalak iragan dira Pleka trinketean. Hona hemen partidien emaitzak:

Hirugarren mailan bi neska irabazle ateratu dira Martine Larzabal eta Muskoa Arizmendi, Sebastien Fourcade eta Marie-Jo Lazkanori gaindituz.

2. B mailan, Andueza eta Dorratzagne eekipa Bidondo eta Kamatorri nagusitu dira.

2. A mailan, Housset



San Josepe eskolako hirugarren zikloko haurrek parte hartu zuten Lapurdiko kantu txapelketan «Gure Eskola» kantuarekin.



Korrika Ttiki iragan zen apirilaren 8an, Ikastolak antolaturik.

eta Iriartek galdu dute De la Vaca eta Ortizen kontra. Eta azkenik, lehen mailako finalean,

Halsouet eta Ladebat, Housset eta Oiharzabalen kontra irabazi dute. Ondotik, denak el-

kartu dira afari on baten inguruan eta gau goxo eta alai bat pasatu dute.

ehnelur
euskarri herriko nekazarrien elkartzasuna

Mota guztietako gasolioa
Baserrietarako

Mikel 606 340630

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

Parrilan egindako haragi eta arrainak

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE

MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

BAR Botxo OSTATUA

© 948630052 • Zalain • BERA

EZKONTZAK

Fernando Zapata Bernal eta **Aitziber Cebrian Bidegain**, Arizkungoak, maiatzaren 3an.

Pedro Maria Garcia Zambrano eta **Ruth Chacon Martinez**, Elizondokoak, maiatzaren 3an.

Alfredo Zelaieta Urrutia eta **Maria Aleman Arriada**, Elizondokoak, maiatzaren 10ean.

Ernesto Martin Tejada eta **Marina Preseda Alberdi**, Irungoak Beran, apirilaren 13an.

Luis Maria Etxeberria Perurena eta **Erramune Casteig Gutierrez**, Bera eta Donostiakoa, maiatzaren 10ean.

Jesus Maria Almandoz Larralde eta **Jaione Jimenez Tomasena**, Lesaka eta Goizuetakoa, maiatzaren 3an.

Jon Etxegia Etxeberria eta **Maria Olatz Aizpurua Biurrarena**, Goizueta eta Aranoakoa, maiatzaren 1ean.

Jose Luis Baquedano Ruiz eta **Maria Asuncion Arribillaga Gaztañaga**, Leitzakoak, maiatzaren 3an.

Geoffroy Eteve eta **Maidier Andonine Céline Chena-Basanta**, Senperekoak, urtarrilaren 25ean.

Jean Michel Gonzalo eta **Christine Agnès Paulette Coulle**, Senperekoak, martxoaren 8an.

Jean-Luc Emmanuel Lopez eta **Céline Astigarraga**, Senperekoak, apirilaren 26an.

SORTZEAK

Martxel Etxarte Leiza, Etxalarkoa, apirilaren 11n.

Maitane Irigoien Etxeberria, Elizondokoa, apirilaren 29an.

Oier Ariztia Azkarraga, Azpilkuetakoa, apirilaren 29an.

Haitz Telletxea Andueza, Berakoa, apirilaren 28an.

Maidier Tapia Iriarte, Berakoa, maiatzaren 4ean.

Eneko Garcia San Miguel, Berakoa, maiatzaren 5ean.

Urtzi Fagoaga Alvarez, Berakoa, maiatzaren 9an.

Ane Ordoki Telletxea, Lesakakoa, apirilaren 28an.

Ainara Etxeberria Terreros, Lesakakoa, apirilaren 30ean.

Asier Larralde Korta, Lesakakoa, maiatzaren 7an.

Xabi Larretxea, Senperekoa, martxoaren 1ean.

Maëlle Agerre, Senperekoa, martxoaren 3an.

Hélène Carine Elodie Jean, Senperekoa, martxoaren 3an.

Ihintza Martiarena, Senperekoa, martxoaren 14an.

Joa Lopes, Senperekoa, martxoaren 14an.

Hélène Scaravetti, Senperekoa, apirilaren 17an.

Nahia Albistur, Senperekoa, maiatzaren 6an.

HERIOTZAK

Martin Sansiñena Sanzberro, Etxalarkoa, 72 urte, apirilaren 30ean.

Mari Angeles Goizueta Goñi, Etxalarren, 51 urte, maiatzaren 1ean.

Juan Manuel Rekarte Elizalde, Erratzukoa, maiatzaren 10ean, 86 urte.

Valentin Agesta Ibarra, Doneztebekoa, maiatzaren 9an, 69 urte.

Jose Antonio Lizarraga Azpiroz, Leitzakoa, maiatzaren 7an, 85 urte.

Rufino Rekondo Mujika, Lesakakoa, apirilaren 16an, 92 urte.

Jose Elgorriaga Otondo, Alkaiagakoa, maiatzaren 6an, 88 urte.

Manuel Olaetxea Ubiria, Lesakakoa, maiatzaren 1ean, 77 urte.

Victoria Erasun Iriarte, Beintza-Labaiengoa, apirilaren 19an, 86 urte.

Maria Jesus Arrieta Petrikorena, Doneztebekoa, apirilaren 26an, 84 urte.

Zoilo Inda Martinandiarrena, Doneztebekoa, apirilaren 29an, 79 urte.

Pascual Etxarte Elizondo, Igantzikoa, apirilaren 29an, 78 urte.

Leoncio Irizar Loperena, Berakoa, maiatzaren 4an, 44 urte.

Dionisio Etxekolenea Aizega, Saldiaskoa, maiatzaren 5ean, 77 urte.

Valentin Agesta Ibarra, Doneztebekoa, maiatzaren 5ean, 69 urte.

Anabel Pazzini Duarte, Lesakakoa, maiatzaren 9an, 24 urte.



Eskela eta eskertzak
948 631188

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 65 € ordaindu behar da **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-ttapa**ra igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.



Luis Mari ZELAIETA ELTZAURDIA
I. URTEMUGA (2002-V-18)

*Zure begien dizdira eta
Expainetako irria
beti gurekin egonen dira
Luis maitagarria.*

ZURE FAMILIA



**TANATORIO
BAZTANDARRA**
Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
Urdazubi eta
Zugarramurdin
24 orduko zerbitzua
tanatorioan eta etxean
prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704

ARETO-FUTBOLA

Lesakako Haizegoa Ostaturia garaile Baztan-Bidasoako txapelketan

Finalean 2-1 irabazi zion berako Zurrut-Errekalde Ostaturi

Aitor AROTZENA

Maiatzaren 1ean jokatu ziren Erreka elkarrekin antolatutako Baztan-Bidasoako areto-futbol txapelketako azken partidak. Lehenik hirugarren posturako lehia jokatu zen eta bertan Doneztebeko Titi Ostaturia 6 eta 2 gailendu zitzaion Leitzako Asto Billa taldeari. Doneztebarrak beti aitzinetik izan ziren, baina emaitzak erakusten duena baino partida estuagoa izan zen. Hirugarren postua erabakita, txapelketa erabakitzea falta zen. Horretarako, Bortzirietako bi talderen arteko derbia zegoen jokoan, gainera. Lesakako Haizegoa Ostaturia alde batetik eta Berako Zurrut Errekalde bertzetik.

Errespeto handiz ekin zitoten partidari bi taldeek, horrelako finaletan ohikoa denez. Baina hasierako tanteo horren ondotik, partida irekia eta aukeraz bete eskaini zuten. Halere, atsedenaldira husnako berdinketarekin ailegatu ziren.

Finaleko lehendabiziko gola egin zuen Joseba Uriak, txapelketako eta finaleko jokalaririk onena izendatutakoak, korer batean. Gol hau kolpe handia izan zen Zurrut Errekaldekoentzat, baina burua altxatu eta aukerak izan zituzten beratarrek, bata bertzearen ondotik. Baina bosgarren falta egin



ARGAZIAK: FOTO ZALDUA

Lesakako Haizegoa taldea txapelketa suertatu da Baztan-Bidasoako areto-futbol txapelketan. Bakarkako hainbat sari ere eskuratu ditu.

zuten eta horrela ailegatu zen Haizegoaren bigarren gola, penalti bikoitz batean Rubenek, txapelketako golegile nagusiak, egindako jaurtiketaren ondotik. Baina partida erabakia zegoela zirudien arren, segidan sartu zuen Zurrut Errekalde bere gola, Iñigo Lasagaren bitartez. Azkeneko minutuetan gogor estutu zuen Berako taldeak, aukera politak ere izan zituen, baina ezin izan zuen berdinketarik lortu. Azkenean Haizegoa Ostaturia txapelketa eta Zurrut Errekalde azpitxapelketa.

**BAKARKAKO SARI
GEHIENAK**

HAIZEGOARENTZAT
Gainera, txapelketaz



Final polita egin zuen Berako Zurrut-Errekalde taldeak, baina azkenean azpitxapelketa izan zen.

gain, bertze sari gehienak ere Haizegoako jokalarientzat izan ziren. Joseba Uriak finaleko eta txapelketako jokalaririk onenaren saria eskuratu zuen eta Rubenek golegile nagusiare-

na. Gol guttien jaso zuen atezaina ere Haizegoakoa izan zen, Angel Urtegi. Kiroltasunaren saria bertzerik ez zien aldegin Haizegoakoei, hau Titi Ostaturientzat izan baitzen.

FLASH

Mixel Aginaga

Maiatzaren 3an Eibarren jokatu zuten errepedeko Duetloia irabazi zuen Nartarteko kirolariak. 10 km lasterka, 40 bizikletan eta azken 5ak lasterka egiteko ordubete, 47 minutu eta 53 segundu behar izan zituen, bigarren izan zen Zuhaitz Ezpeletak baino 37 segundu guttiago. Larunbat honetan, maiatzak 24, Euskadiko mendi duatloia txapelketan parte hartuko du Galdakaon (Bizkaia).

Euskal Herriko lur gaineko sokatira txapelketa

Ekainaren 1ean, Urdazubín jokatu da Euskal Herriko lur gaineko sokatira txapelketaren finala, goizeko 11:00etatik aitzinera. Lau lauren kontrako txapelketaren azken jardunaldia izanen da eta 320 kiloz beheko kategorian ariko dira Areso A eta B, Nuarbe A eta B (Gipuzkoa), Goierri A eta B (Bizkaia), Mutriku (Gipuzkoa), Getxo (Bizkaia) eta Gaztedi (Bizkaia).

Gauzokolarien lasterketa ere Urdazubín

Egun berean, ekainaren 1ean, Gauzokolarien laugarren lasterketa egingen da Urdazubín. 17:00etan abiatuko da lasterketa plaza eta partehartzaileek zazpi kilometro terdiko ibilaldia osatuko dute, Sargardikoborda, Elixondokoborda, Elizagunekoborda, Azkar, Mitxenborda, Argandoita, Altxukobordasora eta Tontxenekoborda barne igaroz. Hasieran eta akabailan, 400 bat metroz, zakua garraiatu beharko dute kirolariak.

PILOTA

Belateren Herriarteko pilota txapelketan ari dira eskualdeko herriak

Baztan eta Leitza lehen mailako finalerdietan sartuko dira

A.A.

Belate elkarteak antolatutako duen Herriarteko eskuz binakako pilota txapelketaren lehen fasea azken txanpan sartuta da, lehen nahiz bigarren mailan.

Lehen mailan, sei kategoriatan jokatzeko dira partidak. Launa herriko hiru multzo osatu dira. A multzoan Baztan, Olazti, Larraun eta Goizueta ari dira. B multzoan, Leitza, Bera, Arantza eta Burlata ari dira. Lehen maila honetako C multzoan ez da eskualdeko herririk.

Bigarren mailan ere, hiru multzotan banatuak daude herri partehartzaileak, baina hiruna herri bertzerik ez da multzo bakoitzean. Maila honetan hiru kategoriatan pilotariak bertzerik ez dute jokatzeko. A multzoan Lesaka ari da, Araitz-Betelu eta Iruñearekin batera. Aste honetan atseden izanen dute lesakarekin. B multzoan ez da eskualdeko ordezkariarik, bai ordea C multzoan. Igantzi eta Malerreka ari dira, Tafallarekin batera.

Maiatzaren 24 eta 25eko asteburuan bosgarren jardunaldia jokatuko da. Lehen mailan, Baztan Goizueta-

ren kontra ariko da, Leitza Burlataren kontra eta Arantza Beraren kontra, lehenik aipatutako herrietan. Bigarren mailan, Iruñea Lesakaren kontra ariko da, Tafalla Malerrekaren kontra eta Igantzi atsedena izanen du. Maiatzaren 31 eta ekainaren 1eko aste hondarrean berriz, lehen faseko seigarren eta azken jardunaldia jokatuko da. Lehen mailan Larraun Baztanen kontra, Goizueta Olaztiren kontra, Arantza Leitza- ren kontra eta Burlata Beraren kontra ariko dira. Bigarren mailan, Igantzi Tafallaren kontra ariko da eta Lesaka eta Malerrekak atsedena izanen dute.

Lehenbiziko nahiz bigarren mailan, multzo bakoitzeko txapelak eta bigarren onenak finalerdietarako txartela eskuratuko dute. Orain arteko jardunaldietan ikusitakoaren arabera, Baztan eta Leitza lehen mailan, eta Malerreka bigarren mailan, dute multzo buru izateko aukerarik handienak. Goizueta, Bera eta Arantzak lehen mailan, eta Lesaka eta Igantzi bigarren mailan, bigarren onenak izaten saiatu beharko dute finalerdietan sartzeko.

ARETO-FUTBOLA



ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

Egunkariaren aldeko areto-futbol txapelketa jokatu zen Elizondon maiatzaren 10ean. Parte hartu zuten hamar taldeen artean, Elizondoko Txokoto Os-tatua suertatu zen garaile, Arraioz eta Erratzuko Zubipuntaren aitzinetik. Argazkian, elizondarrak eta erratzuarrak ageri dira elkarrekin.



"Zure begiendako, jar zaitez esku onetan"

KIRURGIA:
Miopia
Astigmatismo
Hipermetropia
Bista nekatua

Zuen poztasuna da gure garantiarik onena

San Juan de Luz laser

Donibane Lohitzuneko Poliklinika: 0033 559 513 144

AGENDA egunez egun

XXV. KULTUR ASTEA

LEITZA

Maiatzaren 31n Aralar Musika eskolaren emanaldia Zineman 18:00etan.
Ekainaren 1ean XXIII. Eskulangintza Erakusketa plazan. Arratsaldean Trikidantz taldea.
Ekainaren 2an «Munduari bira bizikletaz» Eneko Etxebarrietaren diapositiba emanaldia Zineman 20etan.
Ekainaren 3an Ainara Rodaren errezitala zineman 20etan.
Ekainaren 4an Jakoba Errekondoren hitzaldia, Aurreran 20etan.
Ekainaren 5ean Agustín Aranburuk eskainitako bideo emanaldia, zineman 20etan.
Ekainaren 6an «Galaxi» kale antzerkia eskolako atarian 11:30etan. 22:30etan «Biblia osoa... gutxi gora behera» antzerkia Zineman.
Ekainaren 7an Mikel Markez eta Pako Aristiren kantaldi-errezitaldia zineman 20etan.
Ekainaren 8an herriko koadrilen arteko herri kirolak plazan 12etan. Leitzako ESAITek antolatua. 13etan kalejira erraldoiek. 14:30etan herri bazkaria plazan. Jarauta 69 txaranga.

ANTZERKIA

ETXALAR

Maiatzaren 31n «Baserritik baserrira» antzezlan ikusgai Kultur Etxean 21:00etan.

ERAKUSKETAK

ETXALAR

Maiatzaren 30etik ekainaren 1era Eli Mendia, Maribel Aranguren eta Itziar Mendikoaren margolanak ikusgai Kultur Etxean, 10:00etatik 17:00etara.

GAZTE EGUNA

BERA

Maiatzaren 31n Altzaten. Izen-ematea, maiatzaren 26a baino lehen egin behar da.

TELEBISTAKO TXOKOA



TTIPI-TTAPAK EMAITZAK ESKAINIKO DITU

Hauteskundeen balorazioa hauteskunde gau berean

Igande honetan, maiatzaren 25ean, egingen dira Nafarroako Parlamenturako eta udaletarako ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak. Duela lau urte bezala, TTIPI-TTAPA TELEBISTAK ahalegin berezia egingen du gau horretan herriz herriko emaitzak ikusentzuei helarazteko, programa berexi baten bitartez. Eskualdean egokitu diren emaitzak bertze inon baino lehen ikusiko dituzue TTIPI-TTAPAN. Izan ere, herriz herriko datuak eskuratu ahala, udalen eta Parlamentuaren osaketa berriak zein izanen diren kontatuko da zuzenean. Bidean, bozketa egunak emanen dituen gorabeheren erre-

paso ere egingen da, hautesmahai desberdinetan hartutako irudiekin, eta behinbetiko emaitzak eskuratu ahala, duela lau urteko emaitzekin konparatuko dira. Gainera, inguru honetako alkate berriak mahai inguruan biltzen saiatuko da TTIPI-TTAPA TELEBISTA.

MUGAZ GAIN ANTZERKI JAIALDIA Bertzalde, IX. Mugaz Gain haur eta gazteen antzerki jaialdia egingen ari da egunotan Berako Kultur Etxean. Inguru honetako gazte txoen antzerki taldeen lana etxean patxadaz ikusteko modua eskainiko du ttipi-ttapa, eguneko berri saioaren ondotik.

DISKAK



«Raska y pierde»

KAOTIKO

OIHUKA, 2003

Kaotiko talkdearen lehen diskoak pozoi handia zerraman kantuetan. «Mundo Kaotiko» rekin Euskal Herrian ezezik, Espainian eta Frantzia kontzertuen kopuruak eta salmentak goiti egin zuten nabarmen. Bigarren diskoak, normalki, deserosoagoak izan ohi dira beti entzule zein taldearentzat berarentzat ere. Kantuek gehiago sufritzen dutesorkuntzaren urduritasuna eta leloak ez dira horren garbi eta azkar ateratzen burutik. Kaotikoren bigarren diskoa «Raska y pierde» pletorikoa da, gainezka egiten du. Bete-betean asmatu dute kantuak osatzean eta ez dago betelanik. Punk-rockaren izpirituarekin eta jarrerarekin egindako diskoa da. Abesti laburrak, azkarra. Desbideraketarik gabe. Diskoko esaldi bakoitzak mundu bat adierazten du, esloganez beteta dago diskoa. Disko bikaina.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Maiatzaren 2tik 9ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 13,00 €

Zerri gizona
0,948 € kiloa.

Zerramak:
0,46 € kiloa, bizirik.



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,16
1.koa 3,04
2.koa 2,95

Urruxak: Pta/kg. Kanal
Extra 3,22
1.koa 3,10
2.koa 2,99

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):
Mestizoak: urruxak 265,00 € eta idixkoak 255,00 €

Nabarrak: urruxak 206,00 € eta idixkoak 182,00 €.

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,75/2,90
Zaldi-behorrak: 1,75/1,86

Bildotsak: €/k

6-8 kiloak: 5,40/5,70
8-10 kiloak: 4,45/4,80

JAKIN BEHARREKOAK

Miopia, astigmatismo eta hipermetropia ebakuntzak

Posible al da miopia, astigmatismoa eta hipermetropia operatzea, betaurrekorik erabili beharrik ez izateko?

Bai, orain posible da, eta teknika ezberdinak daude, betaurrekoak kentzeko. Orokorrean, Lasik laserraren bidez ikusmena zuzentzeko, zenbait baldintza bete behar dira:

- Miopea, hipermetropea edo astigmata izatea, noski.
- 18 urte baino gehiago izan.
- Ikusmen galera egonkorra izan.

- Begietako osasun ona izan. Beldintza hauetaz gain, lehendabiziko bisitan oftalmologoak erabakiko du ebakuntza egitea posible den edo ez.

Ze azterketa egin behar dira ebakuntza baino lehen?

Estudio oftalmologiko berezia egin behar da, honelako ebakuntzak egiten dituen zirujau oftalmologiko baten eskutik. Proba moderno batzuen ondotik jakinen da ebakuntza egiten ahal den eta zein kirurgija mota aukeratu behar den.

Zenbat denbora irauten du ebakuntzak?

10 minutu baino guttiago eta anestesia lokala jartzen da.

Mingarria da?

Ez du minik sortzen, ez eba-



Duela 10 urte baino gehiago, laser bidezko zuzenketa erabiltzen hasi zenetik, 3 milioi ebakuntzatik goiti egin dira munduan.

kuntzan ezta ebakuntza ondoko segimenduan ere.

Ingestua egon behar da?

Ez, klinikan ordubete edo guttiago egon behar da.

Errekuperazioa azkarra da?

Ikusmen arazoa zenbat eta tikiagoa izan, orduan eta azkarragoa da. Orokorrean, gehienek 24 ordutan eguneroko biziari ekiten diote. Errebisio bat edo bi egin beharko dira, ebakuntzaren eboluzioaren segimendu pertsonalizatua egiteko.

Ebakuntza ondotik lana egun

batzuz utzi behar da?

Ez, gehienetan operatu eta biharamonean hasten dira lanean.

Miopia eta hipermetropia zuzentzeko soluzio bakarra al da laserra?

Bertze teknika bat ere bada, begi barneko lentilla jartzea irisaren aitzinetik edo gibekeetik, anestesia lokalarekin.



AGENDA egunez egun

BESTAK

IRURITA

Maiatzaren 28tik ekainaren 1era Salbatore bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

URDAZUBI

Maiatzaren 28tik ekainaren 1era Salbatore bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

FERIAK

ETXALAR

Ekainaren 1ean, XI. Gasna eta Artisau Feria. Xehetasunak 11. orrian.

MENDI IBILALDIAK

BAZTAN

Maiatzaren 25ean Baztango X. Itzulia: Aniz-Aniz. Xehetasunak 22. orrian.

ZINEMA

BERA

Maiatzaren 22an 20:30etan Txinako «Happy Times» filmea ikusgai Kultur Etxean zine-klub denboraldia akautzeko.

ANTZERKIA

BERA

Maiatzaren 29 eta 30ean IX. Mugaz Gain jaialdia Kultur Etxean. Xehetasunak 9. orrian.

GUARDIAKO FARMAZIAK 112 TFNORA. DEITU

Maiatzaren 19tik 25era

Lesaka (O. Altzate), Doneztebe (S. Larraioz), Elizondo (F. Garcia Mata), Mugairi eta Goizueta.

Mai. 26tik ekainaren 1era

Bera (A. Lasaga), Narbarte, Elizondo (Lezaun), Arizkun, Leitza (M.T. Plaza) eta Goizueta.

Ekainaren 2tik 8ra

Igantzi, Doneztebe (A. Mendia), Elizondo (R. Gezuraga) eta Goizueta.

<p>berako kultur batzordea</p>	<p>Noiz: Maiatzak 23, ortzirala, 22:00etan.</p> <p>Lekua: Kultur Etxean</p> <p>Escena jaialdia: Tempomobile</p> <p><i>Iniziala Danta Gernikako korporazioak Arberu Auzokan eskainiko da</i></p>
	<p>Noiz: Maiatzak 29 eta 30a, goiz-arratsaldean</p> <p>Lekua: Kultur Etxean</p> <p>IX. Mugaz Gain Jaialdia</p> <p><i>Goizez ikastetxeetarako, eta arratsaldean jende guzientzat. Ortzegunak: Torinamena eta Lebiaga ikastetxeak eta Jesusen Bihotz Ikastetxea. Ortzarokak: Ricardo Baraja eta Lebiaga ikastetxeak ikastetxeetarako dira.</i></p>
<p>Noiz: Maiatzak 22, ortzeguna.</p> <p>Orduak: Arratsaldeko 20:30etan</p> <p>Lekua: Kultur etxea</p> <p>Zinekluba: Happy Times</p> <p><i>Txinako filme goxoa, Zine-Klubaren denboraldia akautzeko emateko.</i></p>	<p>Noiz: Maiatzak 31, larunbata</p> <p>Lekua: Altzaten</p>
<p>Gazte Eguna</p> <p><i>Animazioa, pintza lehiaketa, ginkana, jokoak, kirolak, potegoa, aforia eta herriko taldeen kontzertua.</i></p>	

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu.

ARIZKUN. Pisu mobleztatua salgai. Trastero eta garajearekin. Sartzeko moduan. Egoera onean. ☎ 639 012 085

LEITZA. Herri zentzuan 90m² pisua salgai. ☎ 656 787 678

ETXALAR. Etxe unifamiliarra salgai. ☎ 670 410 581.

ELIZONDO. Braulio Iriarten pisua salgai. ☎ 943 260513.

ETXALAR. Baserria leku ederrean, bere lur sailarekin salgai. ☎ 948 635 060

LESAKA. Antoiu karrikan pisua salgai. Mobleztatua eta ia-ia berria dago. ☎ 948 627 536 / 652 738 241

ETXEBIZITZAK

102 Erosi.

ELIZONDO. Pisua erosiko nuke. ☎ 670 749549.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

BERA. Iturlandeta auzoan pisua alokatzen da. ☎ 948 630 090 (arratsaldeko 2etatik 4etara)

BERA. Agerran, Azkain 12,

ADOS

• Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
• Edozein herritan badugu zerbitu.
• Terrenoak erosten dira.
948 451 841 / 607 978 656

ADOS

• Donezteben obra berriak. Santa Luzia plazanazken 2 apartamentu eta lokal komertzialak salgai.
• Osasun Zentru ondoan pisu berriak salgai.
• Aparan zonaldean pisu berriak eta azkeneko 3 partzela eraikigarriak salgai.
948 451 841

3. esk. pisua errentan eman nahi da. ☎ 943 625 355

SUNBILLA. Herri tik 3km-ra etxea errentan emateko. Urte osorako. ☎ 948 393 070 - 608 672 106

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BERA. Pisubat errentan hartuko genuke. ☎ 626 852937.

ETXEBIZITZAK

106 Bertzelakoak

BERA. Pisua konpartituko nuke pertsona bat edo berekin. ☎ 948 631188 (Nerea)

BERA. Apartamentu edo pi-

su bat behar da norbaitekin konpartitzeko. ☎ 94-4004643 - 699 324 458 (Begoña)

GARAJE/LOKALAK

107 Salgai

ELIZONDO. Santiago kalean 200m²tako bajera salgai. ☎ 607 978 656.

Lokala salgai. ☎ 670 410 581

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

Muskitz (Imotz bailaran) etxea egiteko 700m²ko lur eremua salgai. Iruñetik 20 minutura. ☎ 948 503 207 - 699 523 790

LANA

301 Eskaria

Emakume batek zerbitzari moduan lan eginen luke zutaila eta abuztuan. ☎ 650 772 171 (Ainhoa)

Emakume euskaldun batek goizez ordu batzuz lan eginen luke. ☎ 617 567 047

LANA

302 Eskaintzak

Tolosa eta Hondarribia. Udaltzaingorako 10 lanpostu iragarrita. Eskakizuna: Eskola Graduatua. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

Suhiltzaileak. Lanean berehala hasteko, Euskal Herriko Parketan egin ezazu lan. Lan-baldintza ezinhobeak. Eskakizuna: Eskola Graduatua. Adoz. ☎ 948 199 596

Basozaina. Euskal Herriko Parke eta Natur-Erreseratan egin ezazu lan. Lanera altxatzeak etengabe. Eskakizuna: Eskola Graduatua. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

Garraiolaria. Profesional bikalazteko titulua lortzeko. He-

ARANTZA ZYRGINDEGIÀ

Jose Miquel Errandonea

Klase guztietako

zurgin lanak

Osifa auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

datzen ari den sektorea. Adoz ☎ 948 199 596

Osakidetzak. Laster deialdiak: erizain-laguntzaileak,

BERRIKUNTZA

- Multimedia bidezko teorika
- Entzute bidezko teorika (CD, kasetta)
- Teorika klase partikularrak
- Atzeritarrei egokitutako teorika klaseak (nazionalitatearen arabera)

☎ 948 630 800

ALZAGA

☎ 948 630 800 • Legia 42 • BERA

Gustuko zerbait aurkitzen dugunean zurekin konpartitu nahi dugu

L n l z Itz

SUHILTZ ILE K
L n n - h | h s k k
L n - l n z z n k
Esk k zur Esk |
Cr u tu

S Z IN
Eusk l l r k r k l
N tur-Err s r r r
z z u l r L n r b z k
t n . Esk k zur
Esk l G r u tu

U LTZ ING
r k U l t x t n l r
Esk k zur Esk l
G r u tu

C E S
S k r t n k :
l n l z l k .
l n s l u r n l

MINIST I
L GUNTZ ILE K
r k u l x l
E r k u n l n l n .
l k l s t : Esk k zur
Esk l G r u tu

GI -ESK L
I K S LE
r u - s r r k 1,5 ur
r u r u L n z z n k
k l n .

r s t z t z . h k n f r m z .

1 5

ATS-DUE eta zaindariaik. Adoz $\text{\textcircled{A}}$ 948 199 596

Aire kontrolatzaileak. Aireportuak. AENAK eskainitako 250 lanpostu. Eskakizuna: ingelera maila ertaina. Informazioa: Adoz $\text{\textcircled{A}}$ 948 199 596

Gida-eskola irakaslea. Diru-sarrerak: 1.500 euro inguru. Langabeziarik gabeko lanbidea. Informazioa: Adoz $\text{\textcircled{A}}$ 948 199 596

Udaletxe, erakundeetan ofizio-funtzionario bezala egin ezazu lan. Eskola Graduatua edukita: harreragileak, lo-rezainak, txoferrak, atezainak... Presta zaitetz. Informazioa: Adoz $\text{\textcircled{A}}$ 948 199 596

Liburutegi laguntzaileak. Udaletxe, agiritegi, dokumentazio-zentruetan... lanpostuak. Adoz: $\text{\textcircled{A}}$ 948 199 596.

Administrariak. (Tekniko eta laguntzaileak). Bertako Udaletxe eta erakundeetan lana. Deialdiak laster. Eskakizuna: Eskola Graduatua. Adoz. $\text{\textcircled{A}}$ 948 199 596.

Ibardingo benta batean fran-

tsesa dakien saltzailea bilatzen dugu. $\text{\textcircled{A}}$ 948 630 175 - 609 480 646

Leitzako jatetxe batean sukaldeko laguntzaile bat behar da. $\text{\textcircled{A}}$ 627 906 381

Ibardingo kantinan frantsesa dakien neska bat behar da astesburu eta udan lan egiko. $\text{\textcircled{A}}$ 948 630 734

Ultzamako MAIER enpresak langileak behar ditu. $\text{\textcircled{A}}$ 619 829 289

Goizuetan kokaturik dagoen ISKIBI kanpinaren kudeaketa eskeintzen da. Kude-

BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Sukaldean erabilitako olioen bilketa egunak

2003ko ekainaren 5ean

Bera9etatik 12etara
Etxalar13etatik 14etara

$\text{\textcircled{A}}$ 948 635 254 - Etxalar

BOAN TAILERRA

AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

$\text{\textcircled{A}}$ 948 63 06 23 • BERA

aketaren truke jatetxe-ostatuek eman da. Baldintza; Soro-rosle titulua edukitzea. Informazio gehiagorako Lan Orientaziorako Zerbitzua. $\text{\textcircled{A}}$ 610 829 289

MOTORRA

501 Salerosketak

Derbi Senda 75cc motoa salgai. Estrarekin eta egoera onean. $\text{\textcircled{A}}$ 948 510 723 (arratsaldeko 7etatik aintzin)

Nissan GR-SE salgai. 47.000km eta etxeko urte betekin garania. $\text{\textcircled{A}}$ 655 720 052

Yamaha super téneree 600 salgai. Prezio eta egoera onean. Negoziagarria. $\text{\textcircled{A}}$ 686 913 189.

Golf GTD autoa salgai. NA-AC matrikuladuna. 200.000 km. Egoera onean. $\text{\textcircled{A}}$ 948 580131.

KTM 80 Train motoa salgai. NA-AD matrikuladuna. $\text{\textcircled{A}}$ 948 452288 (Arratsaldez).

Yamaha Aerox motoa salgai. Extra askorekin. $\text{\textcircled{A}}$ 948 610779 (Jexux).

GANIX Tailerrak

Iturlandeta, 9 • $\text{\textcircled{A}}$ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA

FIAT Zerbitzua

ANIMALIAK

601 Emateko

Katakume zoragarriak emateko. $\text{\textcircled{A}}$ 948 637213.

ANIMALIAK

602 Salgai

Burguete arrazako zaldi sementala salgai. $\text{\textcircled{A}}$ 630 624 223

DENETARIK

701 Galdu-aurkituak

Seat markako **giltza** galdua. $\text{\textcircled{A}}$ 686 733349.

Mendi-bizikleta emakumearena falta da martxotik. Orbea urdin eta zilar kolorekoa. $\text{\textcircled{A}}$ 600 902631.

DENETARIK

702 Salerosketak

MENDAUR MOTOR

$\text{\textcircled{A}}$ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Terrano 5 atekoak, Clio D, Opel Astra 2DTI, Montero 3 atekoa, Opel Combo, Berlingo, Opel Midi, Suzuki Long Body, Opel Astra 1.6i, SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

Musika ekipoa salgai. 2000w, etapa eta ekipoko kableekin. Berbena talde batena. Egoera oso onean. $\text{\textcircled{A}}$ 649 83 99 22

Bixkiendako silleta salgai. 250 E. $\text{\textcircled{A}}$ 948 63 70 06

Agotz eta lasto fardo tikiak saldu eta garraiatzen dituzte fallala aldetik. $\text{\textcircled{A}}$ 650 340 390

Trikitixa erosiko nuke. Egoera onean egon dadila. $\text{\textcircled{A}}$ 948 610 803 (eguerdi eta ilunabarretan).

LEGASA. Logela bateko armairu-zubia eta 90 cm. ko bi ohatze salgai, bere koltxo eta somierrarekin. Pagoan eginak. $\text{\textcircled{A}}$ 948 450950 - 669 185858.

BAZTANgo UDALA

Sukaldean erabilitako olioen bilketa egunak

2003ko maiatzaren 22an

Elizondo	9:00-13:00	Merkatuko zelaia
Elbete	13:05-13:30	Karriketan barna
Arizkun	13:45-14:15	Karriketan barna
Erratzu	14:20-14:50	Karriketan barna
Amaiur	15:00-15:30	Karriketan barna
Azpilkueta	15:40-16:00	Karriketan barna

$\text{\textcircled{A}}$ 948 580 006
Baztango Udala


Argazkiak berreskuratzeke, bidali kartazala zure helbidearekin.



IZARO TORRES ALEGRIA beratarrak urtea bete du maiatzaren 9an. Muxu handi amaxiren partetik.



ANDONI ETA AITOR LAZKANOTEGI MATXIARENA beratarrak maiatzaren 12 eta 30ean 6 eta 3 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu pila bat atta, ama eta iratiren partetik. Aupa Errealai!




ZORIONAK ANDONI. Auniz urtez zure laguna GAREN partetik.



AINHOA ARBURUA SAGASTIBELTZA beratarrak urteak bete ditu maiatzaren 18an. Zorionak Izaroren partetik.



IZARO TORRES ALEGRIA beratarrak urtea bete du maiatzaren 9an. Zorionak eta amaren partetik.




JABI ITURRIRIA azpilkuetarrak 12 urte bete zituen gan den apirilaren 7an. Auniz urtez Azpilkuetako eskolako partetik.



MARIA BARRENETXE azpilkuetarrak 4 urte egin zituen gan den apirilaren 22an. Auniz urtez Azpilkuetako eskolako partetik.



XABIER SANZBERRO TELLETXEA ETA ENEKO SANZBERRO TELLETXEA etxalartarrek 6 eta 3 urte beteko dituzte maiatzaren 14ean eta ekainaren 20an. Zorionak familiaren partetik.



ASIER OSES GAINZA beratarrak 5 urte beteko ditu maiatzaren 23an. Zorionak eta muxu bat attona, amona eta osabaren partetik.



ASIER OSES GAINZA beratarrak 5 urte beteko ditu maiatzaren 23an. Zorionak eta sartu auniz gol. Saioa, atta eta amaren partetik.



ARANTXA SESE AGARA beratarrak 5 urte bete ditu maiatzaren 12an. Zorionak gure berritsuari atta, ama, Maddi eta Jose-txoren partetik.



AINHOA LARRETXEA AGIRRE beratarrak 7 urte egin ditu maiatzaren 13an. Zorionak eta auniz urtez Oier, atta eta amaren partetik. Aupa putxurritai!



JONE ETXEPARE ELORIO beratarrak 2 urte bete ditu maiatzaren 17an. Zorionak eta muxu handi bat Olatz eta familiaren partetik.




JULEN ALTZUGARAI URZELAI beratarrak 7 urte bete ditu maiatzaren 20an. Zorionak eta muxu handi bat izeba Esther eta familiaren partetik.



JOSUNE ETA JOHANNA RAMIREZ lesakarrek maiatzaren 19an eta 23an 2 eta 6 urte beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik.



ITXASO ETA IRATI MINDEGIA MITXELENA auriztarrek 6 urte beteko dituzte maiatzaren 24ean. Zorionak eta familia guziaren partetik.



AIMAR TELLETXEA IRATOLA igantzarrak 3 urte bete ditu maiatzaren 15ean. Zorionak eta muxu handi bat atta, ama eta Markelen partetik.



OLATZ MITXELENA SAGASTIBELTZA beratarrak 4 urte beteko ditu ekainaren 4an. Zorionak eta muxu bat atta, ama eta Beñaten partetik.



JOSEBA OTXOTOKO RETEI irundarrak urtea beteko du maiatzaren 30ean. Zorionak familiaren partetik.



JANIRE APEZTEGIA ETXEBESTE sunbildarrak 7 urte bete ditu maiatzaren 12an. Auniz urtez eta muxu bat familiaren partetik.



JUANA GANBOAK 78 urte beteko ditu maiatzaren 24ean. Zorionak eta auniz urtez familia osoaren partetik.



JAIONE ETXABE SANZ beratarrak 8 urte beteko ditu maiatzaren 24ean. Zorionak familia osoaren partetik.



PAUL sunbildarrari zorionak maiatzaren 19aren partez eta **ISIDRO**ri goraintziak. Bikote bat.



ELENA ETA MAITANE etxalartarrek 2 eta 11 urte beteko dituzte maiatzaren 7an eta 15ean. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



LOLI LADERA elizondarrak 70 urte beteko ditu maiatzaren 25ean. Zorionak familia osoaren partetik.



LEIRE ELTZAUDIA MENDIBERRI beratarrak 10 urte bete ditu maiatzaren 19an. Zorionak gure printzesari familiaren partetik.



NICOLAS MENDIBERRI ALEMÁN arizkundarrak ekainaren 12an urteak beteko ditu. Zorionak familiaren partetik. Txanpainera gonbidatu!



MIKEL ENDARA PETRIRENA beratarrak 21 urte bete ditu maiatzaren 16an. Zorionak familiaren partetik.



IRAKI ENDARA PETRIRENA beratarrak 25 urte bete ditu maiatzaren 19an. Zorionak familiaren partetik.



MAIALEN RUIZ ALTZUGARAI beratarrak 3 urte bete ditu ekainaren 4an. Zorionak familiaren eta bereziki Leireren partetik. Muxuak.



UNAI LEIZA PEREIRA lesakarrak 3 urte beteko ditu ekainaren 7an. Zorionak Denis, ama, atta, amaxi, izeba eta familia guziaren partetik. Muxuak



EIDER URRTUTIA TELLETXEA 3 urte bete ditu maiatzaren 21ean. Auniz urtez Xabier, atta-ama eta Elordiko familiaren partetik.



XABI IPARRAGIRRE ZUBIETA etxalartarrak urtea beteko du ekainaren 2an. Zorionak eta muxu bat eta amaren partetik.



ANDONI SAN MARTIN doneztebarrak 10 urte beteko ditu: Zorionak zuri opariak neri belarritik tira zuri Nik ez dut beharrik.



JAIONE IRAZU ARRUTI beratarrak urtea beteko du maiatzaren 25ean. Auniz urtez atta, ama, Saioa eta Sararen partetik.

NORBAIT ZORIONTZEKO,

**BIDALI BERE ARGAZKIA,
TESTUA ETA 0,26 EUROKO
13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**

ttipi ttapa • Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA

MUEBLES METS



LARUNBAT
ARRATSALDETAN
IREKIA

Sarrera
BERATik da

Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA

www.mueblesamets.com

Sukaldeak

Egongelak

Logelak

Bainugelak

4000 m²

erakusketa

AUKERA HANDIAK

KOLTXOIAK

- MALGUKIA
- LATEX-a
- MISTOA

OINARRIAK

- SOMIERRAK
- ABATIBLEAK
- TAPIZATUAK

%50
deskontua





Himalayako Mendialdean: **SHERPA**

Sherpek, bide-erakusle trebeek eta garraiatzaile nekaezinek, gailurreraino eramaten dituzte espedizioak, baita egoerarik txarrenetan ere.

Nafarroako Mendialdean: **CEDERNA-GARALUR**

Orientazioa eskainiko dizugu
Laguntza eskainiko dizugu
Finantziak bilatuko dizugu
Zure proiektuen gailurrera iristen lagunduko dizugu

